IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

48

Aurkibidea: Lourdes Unzueta Zamalloa: LORE ERRAMUA AIREAN. **3**. Iratxe Ormatza Imatz: NDIAYE. **5**. Miren Agur Meabe: POEMAK. **8**. Joseba Aurkenerena: OTSOA ALKIMISTA NAFARROAKO ENRIKE II.AREN GORTEAN. **11**. Luigi Anselmi: BERTZEREN LAU POEMA. **16**. Amaia Iturbide: AHATEEN BALLETA. **18**. Jabier Kalzakorta: ETXAHUNEN *OFIZIALENAK* KHANTOREAREN BOST AHAPALDI GEHIAGO. **24**. Miren Ibarluzea Santisteban: GELDOKO KAMINOARI IPINITAKO BERTSOAK ETA ERANTZUNA. **30**. Sebastian Gartzia Trujillo: NIKOLAS ORMAETXEA “ORIXE” IDAZLE MISTIKOA ALA MISTIKA IDAZLE? **37**. Iñaki Sarriugarte Irigoien: HERTA MÜLLER: ERRUMANIAKO AHOTS ALEMANIARRA. **45**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA
Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA
Ikeder, S. L.

Argitalpen hau Bilbon irarri da 2009ko abenduan, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times eta Bodoni letra moldeez. Irudiak «Satie et la Danse», «Dictionnaire du ballet moderne» eta «Historia del mundo moderno 3» liburuetatik atera izan dira.

LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngoa
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bbk

LOURDES UNZUETA ZAMALLOA

Lore erramua airean



Oraindino orri berdez jantzita dauden arbolak dar-dar dabiltza, alde batera eta bestera haizearen esanetara makur. *Noto* hegoaldeko haizea xuxurlaka dabilkie orrioi, uda amaierako eta udagoien hasierako ekaitzen berri dakarkie orrioi, eta ez dute, ez, batera eta bestera makurtzea beste erremediorik. Arbolarik handi eta tantaienek jasaten dituzte gehien haizearen bufada eta erasoak. Handi doaz gorantz, zeruari eta lurrari desafioz, zenbat eta altuago orduan eta haizearen arrisku gehiago dutela, horren ezjakin.

Noto hegoaldeko haizeak herriko kaleak erdi hustu ditu. Jenderik apenas dabil kale artean. Herrikoak bertakoak, batzuk, eguneroko zereginak eta betebeharrak egin egin behar direlako, *Noto* haizeak edo beste edozein haizek jotzen duelarik berdin. Leihoak eta balkoietako ateak danbadaka darabiltza haizeak. Kale kantoietan txistuka, kale kantoiak kantoiago eta kantoietako angeluak kamutsago egiten ditu haizeak. Bertakoak zein bidaiariak, berdin makurrarazten ditu. Bertakoek jakin badakite hori. Bidaiariek jakin balekite hobe.

Kaleartea itxi eta bidaiarietako bat Santoriniko itsaslabarrera hurreratuko da. Haizeak han behean olatuak astintzen ditu eta labarraren kontra leherrarazten, aparraren klimax sinfonikoan. Haizeak goian zirimolak sortarazten. Haizea han goian hegaldatzen. Berez hegaldatzen. Itsaslabarreratutako bidaiariak ere hegaldatzea gurako luke. Berez hegaldatzeko ametsa bete gurako luke. Berez izan ezean, haizearen bultzada aprobetxatuz. Oinak baina berunezkoak ditu eta lurrari datxezkio. Zuztarrak itsaslabarrean tinko, enbor-adarrak haizearen batutapean, hantxe geldituko da, bidaiaria, hantxe itsasoari begira.

Berbetan hasiko zaio haizea orduan. Berba batzuk xuxurlatuko dizkio belarrira. Ezagunak zaizkio eurotako batzuk, inoiz entzun bakoak besteak. *Zefiro*, ezagutuko duzu, bai, *Zefiro* haizearen bila etorriko zinen zu, sortaldetik jo eta udaberriko eta uda hasierako brisara gozoak dakartzan haizearen bila, baina berandu zabiltza, eta neu, *Noto*, hegoaldetik jo eta ekaitza dakardan haizea aurkitu duzu haren ordez. *Boreas*, hori ere ezagutuko duzu, ipa-

rraldetik jo eta neguko haize hotza dakarrena, baina goizetik zatoz horretarako, ni neu hotzitu arte itxaron beharko zenuke. *Euro* haizea, hori ere ezaguna egingo zaizu, sartaldetik dator eta beroa eta euria dakartza berarekin.

Bidaiaria Atenasen egona da eta beldurra eman gura dion *Noto* haizearen berbek han ikusitakoa gogoraraziko diote. Izan ere han, Erromatarren aldiko Agoran hara eta hona zebilela, Haizeen Dorrea deritzona ikusia eta miretsia da. Marmolezko dorre dotorea, planta oktogonalekoa, bere sasoian *horologion* edo erlojua izandakoa. Haren teilatuan behar zukeen haize-orratzak haize-arrosaren araberako haizea seinalatzen zuen.

Irudi ederrak zeuden dorrearen zortzi hormetako bakoitzean zizelkatuta, dorreari buelta osoa emanda ederretsi zituen, haizearen irudikapenak eta zirimolak, orduan bakoitzari bere izena jartzerik asmatu ezinik.

*Noto*ri itaundu beharko diot, haizeen izenak, esan biezazkidala berriro xuxurlatutako izenok, erakutsi biezazkidala ez dakizkidanenak.

Buelta eman, itsaslabarra atzean itxi eta herriari begira paratuko da. *Notos* alde egina da. Alde egin du *Notos* beldurra eman gura duenak eta gaua etorri da haren ordez. Herrian iluntzeko lehen argiak ixetu dituzte han hor hemen.

Baretu da haizea eta kale artean dabiltzanak artezago dabiltza. Gauak hotza dakar berarekin. Hotzitu egin du eta kale artean dabiltzanak artezago eta arinago dabiltza. Bidaiariak berak ez dauka prisarik. Gaueko paisaiari begira dagokio. Prisarik ez, hotza bai azkenerako. Hondarrak ixten dituen kafearen bila abiatuko da.

Kafetegitik irtendakoan haizearekin egingo du topo berriro, haize bafada hotza aurpegian. Ilunduta dago guztiz. Jendea banaka baino ez kalean. Badoa kale ilun luzean. Eskumatara itsaso are ilunagoa. Ezkerretara etxe lerroa eta eliza apenas argiztatua. Hotza. Iluna. Hotza eta iluna nagusi direlarik, eliza aurretik doalarik, hango atea zabalduko da.

Atea zabaltzearekin batera argitasun errainu bero batek gaua urratuko du. Berbaroa. Jendea dator kanporantz. Kandelatzar bi dakartzate, kandelatzar zuriak, euron barrenean tul larrosa kolorekoa. Atzetik datoz atzetik ezkonberriak. Beltzez senarra. Zuri laburrez emaztea. Tul zuria darama buruan. Haizeak egin dio harrera segizioari. Kandelatzarrak kliskaka eta keinuka dabiltza. Tul larrosa eta tul zuria airean darabiltza haizeak. Emazteberriak buelta eman eta airera jaurti du bere lore erramua. Airean zintzilik gelditu da, zortzi haizek eutsita.

Ndiaye

Txokolate arpegia dauka, marroia. Ume txikia bizkarrean daroa. Aurreko egunetan eta asteetan ikusitako lekura abiatu da. Etxea jentez gainezka dago ia beti, goizean, arratsaldean eta gauean. Goizean gaueko txanda egin dabenak datoz, arratsaldean, orduaren arabera, egunez edo gauez behar egiten dabenak egoten dira. Ia danak gizonezkoak dira. Badagoz beste andra bi baina kanpoan egiten dabe behar, eta astegoienetan baino ez dauz ikusten. Gizonezkoakaz beti moldatu izan da ondo, eta alde horretatik gustura dago, baina andren ahotsak faltan daukaz. Faltea, baina, benetan faltea, ahiztena, amarena eta lagunena dauka, baita lehengusinena be.

Ez dau euririk egiten, udagoiena izan arren. Atzo egun osoan euria besterik ez eban egin, eta osteratxu txiki bat egiteko baino ez eban urten. Gaur, halan ba, eguzkiaren izpi bakotxa berarentzat bakar-bakarrik dala iruditzen jako, eguzki osoa berari begira balego lez. Begiak itxita Senegalen egon eitekean, soinean daukazan erropek, baina, Bilbon dagoala gogorazoten deutse.

Berba gitxi ikasi dauz, tartean Bilbo. Madrilen ikasi eban, autobusa hartu baino lehen. Cheickek erakutsi eutsan, idatzi be idatzi eutsan paper txiki baten. Idazten jakin badaki-ta. Harro dago irakurten eta idazten ikasi izanaz, beste neska batzuek ez dabe izan-eta horretarako aukerarik, eta berak halakoak ezagutzen dauz. Bere amak ez daki idazten ez irakurten. Baina irakurten ez dakienak ez dira danak zaharrak, bere adinekoak be badagoz.

San Frantzisko, Cortes, Martzana, Conde de Mirasol dira, besteak beste, irakurten dauzan izenak. Dana irakurten saiatzen da, ea holan errazago ikasten dauan gaztelaniaz. Etxekoek esan deutse beste hizkuntza bat be badagoala, letretan “k” asko daukana. Baina ez dau oraindino hizkuntza hori entzun, edo, beharbada, bai. Ez daki. Wolofera, pulaaera, diolera, mandinkera, frantsesa, ingelesa, arabiera eta gaztelania bereizten daki, besterik ez.

Bankura heldu eta jesarri da. Umea bizkarrean dauka, izarrik dago, nahiz bizkortu ez. Isil-isila da umea, gitxitan egiten dau negar, halako soinu berezia egiten dau gose edo min edo zer edo zer dauka-

nean. Baina negar ia inoiz be ez. Antza badaki, ezin dauala, jente lar dagoala etxean, eta maiz isilik ibili behar dala inor ez izartzeko.

Umea altzoan jarri dau. txokolate kolorea dauka, amatara emon dau. Ezin esan amarena ez dala. Irribarrea zabaldu jako Ndiayeri. Hain txiki, hain txiker. Eta, halanda be, ez dago beste inor ez beste ezer bera baino gehiago maite dauanik. Bere burua baino askoz be gehiago maite dau umea: Oureye.

Titiburua ahoan imini, eta gogotsu hartu dau umeak. Errekea aurrean dauka, beste aldean etxeak, kaleak eta jente ugari hara eta hona. Etxean egongo balitz lez: jentearen joan-etorriak. Erropak, kotxeak, kaleak eta etxeak ez dira bardinak. Hemen eta etxean, ostera, jentea hara-hona dabil, beharrean, gauzak eroaten, lagunak agurtzen, koadrilan berbetan. Jesarrita eta begira dagoala Ndiayeri ezer ez jako egiten arrotz. Bankua da orain arte aurkitu dauan lekurik goxoen, lasaien eta bake gehien emoten deutsana. Eta harritu egin da, ia beti hutsik ikusten daualako.

Edadeko andra bat ikusi dau, bere senarra ei danagaz. Kutxetan tomateak, kipulak eta patatak ekarri dabez, eta erakusgai jarri, zubiaren ondoan. Itxura ona daukiela otu jako, eta aukerarik izan ezkero, erosiko ebazala pentsau dau. Baina jatekoa ez dau berak erosten. Abdouk erosten dau. Etxeko batek. Berak gizonentzako jatekoa egin behar dau. Besterik ez. Erropea, esaterako, beste leku baten garbitzen dabe, etxean ez dago-ta lekurik erropak garbitu eta lehortzeko. Senegalgo andra bat etorten da erropak jasoten.

Azokara joatea be faltan dauka. Han egunero joaten zan beharretik urten eta gero, arraina, barazkiak, inoiz okelea be erosten. Eta holan bertakoakaz berba egin, ea eguna zelan, senideak ea ondo dagozan, inor gaixorik dagoan, edo haurdun, irratian edo telebistan entzundako gorabeherak, eta bestelako berbabideak, bizimodu gozoa egiten dabenak. Halakorik ez, baina, Bilbora etorri danetik. Atzo, bazkalorduan, esan eutsen laster Senegalgo anaia bik denda bat zabaldu behar dabela San Frantzisko kalean. Irrikan dago. Holan hara joan eta hareekaz berba egiteko, kalera urteten dauanean. Pentsetan dau, ganera, Senegalgo beste batzuk be bertan batu eta jente gehiago ezagutuko dauala.

Gogora etorri jako osabaren dendea, berak be bertan egiten eban behar. Etxekoa zanez, ez eutsan ia ezer ordaintzen, baina gustura egoten zan bezeroakaz. Astia hartzen eben: lehenengo eta behin berba egin, eta gero dana dalakoa erosi. Batzuek ezer erosteko euki barik be, osteratxua egiten eben. Dendan egindako orduak arin baino arinago igaroten jakozan.

Ndiayek mutil argal-argal bat ikusi dau, baldar ibilten, zapatek bizitza osoko zamea eroan behar izango balebe lez. Pentsau leike apurtu egingo dala, hain da argala, hain azal-hezur. Hona etorri baino lehenago halakoak ikusi ebazan, baten Dakarrera joan zanean. Ez eban uste izan, baina, hemen holakorik ikusi behar dauanik. Azken baten hemen beharra dago, bera be etorri da beharra dagoalako. Jenteak etxebitzitzak, kotxeak-eta daukaz. Igarten jake aberastasunean bizi dirala. Senegalegaz alderatuta, alde horretatik hemen dirua baino ez dago. Halan ba, ez dau ulertzen drogeak zer emoten deutsen, jaso ez daben maitasuna? Mutilaren arpegiari begiratu eta Oureyerenean jarri dauz begiak: umearen papu beteak, begiak itxita, bizitza osoa aurretik dauala. Mutilaren hezur-arpegiak, ordea, bizitza atzean itxi dauala iruditzen jako.

Umea, antza, bete egin da. Lepoan jarri dau, zotin egin daian. Laster etxera atzera joan beharko dau, eta jatekoa prestau. Bankuan jesarrita jarraituko leuke, andra-gizonei begiratzen, joan-etorriei, kotxeei, errekeari… Baina ezin. Bere buruari esan deutso handik denbora batera, beharbada, asti

gehiago eta luzaroago egoteko aukerea izango dauala.

Halanda be, ezin izan dau ezer egin tristezia astun bat gorputzean zabaldu jakonean. Altzau, eta umea atzean jarri dau. Senegaletik urten ebanetik aldian-aldian sentiduten dau, berunezko goibeltasunak gorputz osoa hartu, eta ezin dau ezer egin. Etxekoakaz gogoratu da. Badaki ama arduratuta egongo dana, inori ezer ez badinotso be. Nebek eta ahiztek be bere barri izan gura izango dabe, baita lagunek eta lehengusu-lehengusinek be. Badaki idatzi beharko leuskiena. Gutun bakarra idazteko adorea baino ez dau izan. Myari idatzi eutsan etorri eta astebetera. Artean gorputzean zabaltzen jakon beruna ez zan hain astuna. Eta halan izango zalakoan, astero gitxienez gutun bat idatziko ebala zin egin eutsan bere buruari. Horrexegaitik be txarto sentiduten da. Idatzi beharko leuke. Behar lar daukalako ez dauala idazten esaten dau bere artean. Baina aldapa gora doala badaki atxakia baino ez dala, bere buruari esandako guzur zuri bat, gero eta ilunagoa dana.

Astebarruan gizonak baino ez dagoz etxean. Hiru logela dagoz, komuna eta sutea. Astegoienean Awa eta Aissatou etorten dira, eta logela berean lo egiten dabe laurek. Gustuko dauz asteburuak, ulea egiteko astia hartzen dabe, etxean lez, alkartzeko eta berba egiteko. Jatorrak dira eta ondo moldatzen da Awagaz eta Aissatougaz, eta bizimodua alaiagoa da. Hareek aspalditik etorri ziran, eta aholkuak emoten deutsiez: zer egin eta zelan. Etxeko gizonen ganera be berba egiten dabe, eta dana errazagoa da.

Astebarruan, baina, bakarrik sentiduten da. Batzuetan beldur da ea berun zama umeak be igarrriko dauan, ea esnearen bidez, nahiz zuria iruditu, umearen barruan beltz bilakatuko ez dan. Hori buruan daukanean, irudi hori, paparretik gora halako estuasun bat joako, birikak estutzen deutsaz, eta ia arnas barik ixten dau. Batzuetan hain da estu, kalean doala gelditu eta horma baten eskua edo alboz jarri behar dau. Inoiz ez dau pentsau izan bakardadea hain astun izan leikena, hain estu, hain itogarri.

Gogo barik sartu dau giltza atarian, bost solairu igon, etxeko atea zabaldu, eta komunera arineketan joan da, negar egiten.

Lasaitutakoan, umea aldatu, eta jatekoa egiten hasi da. Barazkiak zatitu, arroza arroz-makinan jarri, okelea prestau. Bere buruko pentsamentu guztiak jatekoan jarri dauz, ez deutse biderik emon beste ezertan jarteko, bazkarian baino ez.

Gizonak asmau dauz eskilaratik gora, berbetan, algaraka. Giltza entzun dau. Abdouk eskua boltsikoan sartu, eta, “Ndiaye, gutun bat heldu jatzu”.

MIREN AGUR MEABE

Poemak

Urria

Bakardadea bera ere bada ekintza. Zergatik ekin?
Vladimir Holan

Maskor-kixkirriak oldean heldu dira hondartzara, urtero lez.
Posible dirudi bizitza sintesian ikustea lubakia hazi bitartean.

Txakur bat olatuei zaunkaka. Saski batetik laranja bat pirritan.
Posible dirudi oihalak goratzea publikoari itxaron barik.

Urriaren hogeita bosta, zapatua. Semea, bere kabuz futbolean.
Posible dirudi gauzen ordena esku bakarrarekin atontzea.

Hustasun hau ez da besterik bakoa, ez da kasuala.

Ai, lagunok!
Ardo-kopa altxatzen dut nik baratzeko hormei begira
eta kardu-belarra bezain arina sentitzen.
Erreturak errautsa utzi du lurrean,
haizeak nire bekokirantz hauspotzen duen polen grisa.

Bitsa besterik ez dut eskuetan.

Sagarrondoaren adarrak krak egiten duenean
aingeru hautsien barrearen soinuaz,
sinisten dut posible dela oraindik ere zentimetroren bat haztea,
panpinekin berbetan segitzea
eta ahaztea.

Debekuaz

Mamuen adinean debekatuta dago
mugarik gabe maitatzea edo maitatua izatea.
Julia Barella

Hori diozu, Julia?
Eta zer diostazu eskaileran gauez entzuten diren pausoez?
Badirudi beti dela norbait etxera heltzekotan.
Debekatuta egon behar luke, arrazoi duzu,
ilintietara dzanga egitea
urte-giroen sukar hauskarak mendean bagaitu, edo
akaso geu bagara haren kolore, ez dakit.
Horma txikiko baratzea da gurea baina,
uzkurtu eta hedatu egiten dena,
behatzetako tendoi, eguzkiaren legera.
Ortozik nago, zurtz, goroldioa orkatiletan gora,
kontzeptuen arkitektura apaindu nahian,
oin-zolak zauri, hego eta kutxa den baratzean.
Isiltasunak, fruta-arboletan etzaten den argiak, loreontzi zaharrek
eta zure hitzek, Julia,
zure hitzek salbatzen naute zatika.
Ez dut inor maitatuko,
ez nazala inork maite benetan,
ez naiz-eta nintzena, mudaturik jada testura eta etiketa;
kuartzoaren distiran naiz naizena,
barrokismo hutsal bat, berbazko harribitxien egia
mundua ezagutzeko moduan.
Esadazu, Julia, leizezuloen beldur ez zaren horrek,
nondik egiten zaion tira hari-matazari, bakartasunaren adats ilunari
dunetaraino,
zuk, sinisten baduzu hobeto bizi zarela horrela,
zeure buruaren antsiaz, zeugan, zeuretzat eta zeure.
Zabalegiak elurtea eta bizimina koralezko zainetan,
igeltsuzko maskara beti berri honetan,
behin eta berriro langar ni,
eta gorpu ur ertzean, zutitzear.
Nik ezin dut, Julia, unibertsoak topatzen baititut nire eskuetan
inork utzitako adurretan, hennazko kondairak.
Nik ezin bakarrik. Anilezko tintura sobera dut
mamuen adinean.

JOSEBA AURKENERENA

Otsoa alkimista Nafarroako Enrike II.aren gortean

1512ko uztailaren azken egunetan, espainiar armada Nafarroako lurretan barrena sartu zen erresuma konkistatzeko asmoz. Joan Albreteko eta Katalina Foixeko errege-erreginek Iruñea utzi behar izan zuten eta Biarnoko Orthezera igaro. Bertatik bai Erregek eta bai berekin zegoen Nafarroako Pedro mariskalak erresistentzia antolatu zuten. Urte bereko urrian saiatu ziren nafarrak erreinua berreskuratzen, frantses gudarosteak lagunduta, baina huts egin zuten. 1516an nafarrek Amikuze, Oztibarre eta Garaziko lurraldeak askatu zituzten, baina Joan Albretekoak ezin izan zuen Donibane Garazi hiria hartu. Bitartean, Pedro mariskala Erronkaritik barrena sartu zen Nafarroa Garaian. Zoritxarrez, espainiarrek garaitu eta preso hartu zuten. Orduz geroztik, Simancas-eko kartzelan eduki zuten erail zuten arte. Nafarren etengabeko matxinadak ikusirik, espainiarren estatu-burua zen Cisneros kardinalak Nafarroako gazteluak birrintzeko agindua eman zuen. Urte berean hil zen Joan Albreteko Nafarroako legezko erregea, eta handik gutxira erregina, Nafarroa askatzeko ametsa ezin betez.

Euren seme Enrike II.ak koroa hartu zuen. Berehalaxe, gurasoen bide berberari ekin zion. Armada bat antolatu zuen espainiar inbaditzaileak bere erresumatik behin betiko bidaltzeko. 1521ean armada handi bat bildu, espainiarrak garaitu eta erresuma osoa askatzea lortu zuen frantsesen laguntzaz. Hala eta guztiz ere, armada inbaditzaile berrien erasoei ezin eutsiz, Noaingo gatazkan izugarrizko porrota eduki zuen, eta berriro erresuma galdu zuen. 1522an saio berri bat egin zuten nafar leialek eta Amaiurko eta Hondarribiko gotorlekuen defentsari sutsuki ekin zioten. Azkenean, hesitze luze baten ondorioz, amore eman behar izan zuten. 1523an Enrike II.ak Nafarroa Beherea askatu zuen, baina hurrengo urtean berriro espainiarren esku utzi behar izan zuen. Azkenik, espainiarrek ezinezkotzat jo zuten lurraldea mendean edukitzea eta 1525ean betiko abandonatu behar izan zuten. Orduan, Enrike II.ak erret egoitza Orthezetik Donapaleuko gaztelura aldatu zuen.

Gerla hauetan guztietan frantsesek euren interesen alde jokatu zuten eta Enrike II.ak berehalaxe ulertu zuen Frantziako Frantzisko I.a erregeak ez

zuela benetan, nahiz eta hitzez behin eta berriro horrela aldarrikatu, nafar erresuma liberatzea bilatzen, Espainiari min egitea baizik, eta tarteka eskaintzen zion laguntzak bere benetako interesak ezkutatzen zituela. Orduz geroztik, bere burua bakarrik ikusi zuen, bakarrik bai, baina ez etsita. Hala-hola, eta frantsesen laguntzarik gabe, armada berri baten antolatzeari ekin nahi zion. Horretan ari zen, baina garai hartan Europako armadarik boteretsuena zenari irabazteko urrea behar zuen, eta Nafarroako erret altxorrean ez zegoen urrea. Donapaleuko gazteluan egunak bata bestearen atzetik igarotzen ziren monotonia handiaz, eta Nafarroa Garaia askatzeko itxaropena ahitzen ari zitzaion.

Egun hartan Errege sala nagusian zegoen, bere tronuan eserita, eta hamar bat kontseilariz inguratuta. Gaia betikoa zen: erresuma askatzeko antolatu beharreko armadaren premia.

—Orain ere betikoan gaude Errege Jauna, urrerik gabe ezin dugu ezer antolatu, eta frantsesen aldetik ezin da ezer espero. Beraz,…

—Beraz, Etxauzeko Jauna, orain arte bezala jarraitu beharko dugu, gure gazteluko lau hormen artean! —moztu zion Enrike II.ak biziki haserreturik.

Isiltasuna egin zen nagusi sala zabal hartan. Halako batean Baigorriko Jaunak hitza hartu zuen.

—Jaun Goren hori, barka beza erran behar dudana ergelkeria iruditzen bazaio, baina ene uste apalez, gaur daukagun irtenbide bakarra alkimistengana jotzea litzateke.

—Alkimistak diozu? —erantzun zion Erregek, entzuten zuena ezin ulertuz— Hagitz interesgarria. Segi, segi zure azalpenaz, otoi!

—Berorrek jakinen duen bezala, alkimia hagitz zientzia zaharra da, materia eraldatzea bilatzen duena, hau da, edozein metal urre bilakatu nahi duena.

—Bai, ene jaun leiala, hori dena ezaguna dut, baina zuk ezagutzen al duzu horretan jarduten al duen inor?

—Bai Errege jauna, —ihardetsi zion irmoki Baigorriko Jaunak— ezagutzen dut eta Otsoa Zalgizeko du izena.

—Otsoa Zalgizeko diozu? Zuberoako Zalgizeko jaunaren familiakoa al da?

—Bai Errege Jauna, Zalgizeko Jaunaren iloba. Fraidea da eta erresuma erortzean Austriako abadia batera abiatu zen. Han Wenzel Seiler izeneko beste fraide bat ezagutu zuen eta lagun handiak egin ziren. Dirudienez, Wenzel Seilerrek bazekien abadiako txoko ezkutu batean altxor bat bazela, eta Otsoa Zalgizekoarekin batera, bilatu eta topatu egin zuten. Haatik, aurkituriko kutxan ez zuten urrerik topatu, hauts gorri berezi bat baizik, eta berekin batera latinez idatzitako esku-izkribu bat. Bertan esaten zenez, hauts horrekin igurtzi ondoren eta sutan jarrita edozein metal urre bihur zitekeen, eta segidan jarraitu beharreko prozesuaren urratsak azaltzen ziren. Bi fraideek egin beharreko guztia burutu zuten eta urrea, behin eta berriro, lortu zuten. Aurkikuntza laster zabaldu zen ahoz aho eta belarriz belarri. Jaun eta errege ugari hauts gorriaren gibeletik hasi ziren, baina alferrik, bi fraideek ez baitzuten euren sekretua inoren esku jarri nahi izan. Wenzel preso hartu zuten eta baita torturatu ere hauts gorria non gordetzen zuten aitor ziezaien. Alferrik, Wenzelek ez baitzion inori deus azaldu, eta jasandako tortura ikaragarrien eraginez hil zelarik, berekin batera eraman zuen hilobira hauts gorrien kokapenaren sekretua.

—Eta Otsoa Zalgizeko? —moztu zuen Erregek.

—Ezkutaturik dago nonbait bere sekretuarekin batera. Lehengo batean, Zalgizeko Jaunak honen guztiaren berri eman zidan eta aipatu zidanez, Otsoa prest omen dago bere hauts gorria Nafarroako Erresumaren eta bere legezko erregearen alde

jartzeko, euskaldun zintzo eta leiala baita. Eskatzen digun bakarra zera da, soldadu talde bat bidal dezagun Italiako iparraldean ezkutatzen den abadiara, Donapaleuko gaztelu honetara etorri ahal izateko.

Hau entzutean, Errege tronutik altxatu zen eta urduritasun handiz, bizpahiru gizon fidel aukeratu eta bere erret ganberara eraman zituen Otsoa eta bere hauts gorria Donapaleura ekarriko zituen espedizioa sekretu handienean antolatzera. Huraxe zen erresuma askatzeko amesten zuen aukera eta ez zegoen prest galtzen uzteko.

Zazpi egun beranduago, hamar bat gizonez osaturiko espedizioa Italia alderantz abiatu zen. Merkatariz jantzita zihoazen eta oihalez, lanabesez eta zeramikazko ontziz betetako hiru zalgurdi zeramatzaten. Gizon talderik handiena zalgurdien aurretik zihoan; sei bat zaldizko ziren eta beraien buru Baigorriko Jaunaren seme premua zen Allande gaztea. Bost aste behar izan zituzten Otsoa Zalgizeko aterbetzen zen abadiara iristeko, eta beste hainbeste, Donapaleuko gaztelura itzultzeko. Galtzada nagusiak saihesten zituzten inongo soldadurekin ez topatzeko eta mesfidantza guztiak uxatzeko zenbait herritako ferietan euren produktuak saldu eta berriak erosi egin zituzten. Horrela burutu zuten euren ibilaldia inoren mesfidantza piztu gabe, eta erositako produktuen artean Otsoaren hauts gorria gordetzen zuen kutxa gotorra ekarri.

Gazteluaren dorre nagusiko begiraleek zilarrezko turutak jo zituzten merkatari faltsuen karabanaren etorrera iragartzeko. Errege eta bere kontseilariak erret salako leiho zabaletatik begiratu zuten eta karabanaren buruan zetozen zaldizkoak ikusi. Beraien artean Allande Baigorriko adoretsua eta Otsoa Zalgizeko fraidea zetozen. Erregeren bihotza bozkarioz gainezkatu zen eta eztarrian lasai hitz egiten eragozten zion korapiloa sumatu zuen. Azkenean! Huraxe zen bere ametsen hastapena. Erresumaren askatzea gertu zegoen!

Handik hamar bat minutura, Allande Baigorriko eta Otsoa Zalgizeko erret salara sartu ziren. Enrike II.ak, ezin egonez, tronutik jaiki eta protokolo guztiak ahantzirik, bi etorri-berriengana hurbildu zen.

—Jaunak, esperantza handiz itxarotako unea iritsi da. Ongi etorri Nafarroako Erresumaren gortera. Berri onik al dakarkidazue?

—Bai Errege Jauna, berorrek erran bezala, askatasuna itzul diezagukeen hauts gorria dakargu —ihardetsi zion Allande Baigorriko gazteak—. Eta pozaren pozez, berekin zihoan fraidea aurkeztu zion. —Errege, hauxe da Otsoa Zalgizeko, berorren zerbitzari leiala.

Fraideak burua makurtu zuen Errege agurtzeko.

—Urte aunitzetako Otsoa Zalgizeko, dagoeneko jakinen duzun bezala, Allanderen aita den Baigorriko Jaunak zure aurkikuntzaren eta leialtasunaren berri eman zidan, eta horrekin batera, esperantza berriak piztu ene bihotz zaurituan. Jaungoikoak sobera daki ez ditudala aberastasunak xerkatzen, gure erresumaren libertatea baizik. Eta tamalez, horretarako urrea behar dut, zuk bakar-bakarrik eman diezadakezun urre gorria. Prest al zaude lan horretan jarduteko?

—Bai Errege Jauna. Nire herria, berorrek bezainbeste maite dut, eta edozein gauza egiteko prest nago espainiar inbaditzaileak gure erresumatik behin betikoz igortzeko.

—Eta horretarako, zer behar duzu? —Erregek, Otsoa Zalgizekoaren hitzek beregan sorturiko poza ezin ezkutatuz.

—Laborategi bat jauna, labeaz eta iturriaz horniturikо laborategia.

—Eta ukanen duzu! —Erregek—, eta hurbil zeukan Etxauzeko Jaunari begira, horrela agindu zion:

—Etxauzeko Jaun prestu hori, antola ezazu laborategi bat ekialdeko dorrean, eta hornitu Otsoa Zalgizekok beharrezkotzat jotzen duen guztiaz.

—Baina Errege Jauna, altxorra erdi hutsa dago, eta horrelakoak oraindik gehiago hustuko du! —Etxauzeko Jaunak, eskuak burura eramanda.

—Berdin da, oso-osorik hustu behar bada ere, antola ezazu laborategia! Eta besterik esan gabe, Errege bere ganberara erretiratu zen.

Hiru hilabete aski izan ziren laborategia antolatzeko eta Otsoa Zalgizekok berehalaxe ekin zion agindutako jarduera burutzeari. Materia eraldatzeko prozesua luze samarra eta hagitz korapilatsua zen arren, denbora gutxian bete zuen arras hustuta zegoen nafar altxorra. Enrike II.a eta bere buruzagiak txoriak baino alegerago zeuden eta segituan hasi ziren armada berria antolatzen. Alabaina, urre hura ez zen nahikoa, askoz gehiago behar zen-eta. Otsoa Zalgizeko lanean aritzen zen, goizez eta arratsaldez, akitu arte, baina prozesua luzea eta zaila zenez gero, denbora luzea beharko zuen beharrezkotzat jotzen zuten urre kopurua atzemateko. Erregek denbora murriztu nahi zuen, eta horretarako labe handi bat egiten agindu zuen, eta laguntzaile gisa, hiru gazte jarri zituen Otsoa Zalgizekoaren esanetara.

Gauza jakina da hormek ere entzuten ahal dutela, eta ordurako fraide alkimistaren berria zabalduta zegoen espainiarren artean. Inbaditzaileek Iruñean zeukaten erregeordeak Otsoa Zalgizekoaren eginbeharra, nola edo hala, edozein preziotan, eragozteko agindua jaso zuen. Agindutakoa betetzeko bide ugari jorratu zuen. Donapaleun zituen zelatariak mobilizatu zituen eta hauen bidez, Enrike II.ak fraide alkimistaren zerbitzura jarritako gazte horietako bat diruz erosi zuen. Gazte salduak ez zuen fraidearen sekretua ezagutzen, eta horren atzetik egunak eman bazituen ere, ez zuen nehoiz lortu. Fraideak ez zuen deus idatzirik, eta prozesua buruz zuzentzen zuen. Momenturik erabakigarrienetan, fraideak hiru gazteak laborategitik irtenarazten zituen eta itzultzen zirenerako, labean goritzen ezarritako burdina urre bihurturik izaten zen.

Horrela izaki, gazte salduak Otsoa Zalgizeko hiltzeko agindua jaso zuen. Bortxaz ezinezkoa zuen, laborategiko atea zaintzen zuten gerlariek bere ezpatez aldez alde zeharkatuko baitzuten. Eta bizia espainiarrek emandako dirua haina maite zuenez, sabotaje bat prestatu zuen, istripu itxurako batez, fraide alkimista akabatzeko. Labea manipulatu zuen tenperatura kontrolatzen zuen mekanismoa hondatuz. Eta horrela, Otsoa Zalgizeko lanean bakarrik ari zen horietako batean, labea izugarri berotu, goritu eta lehertu egin zitzaion. Eztanda hartan fraidea xehe-xehe egina gelditu zen, hamaika puska ttikitan zatikaturik.

Enrike II.ak labea berreraikitzen agindu zuen arren eta bere fisikariek Zalgizekoak utzitako hauts gorria metalen eraldaketan behin eta berriro erabiltzen ahalegindu ziren arren, inoiz ez zuten deus lortu. Fraideak berekin hilobira eraman zuen betiko berak eta Wenzel Seilerrek Austriako abadian aurkituriko sekretua. Enrike II.ak ez zuen inoiz, frantsesekin kontatu gabe, beharrezkoa zuen urrea lortu, eta itxaropen guztiak galduta hil zen 1555eko maiatzaren 25ean. Haren alaba Joanak, Joana III.a Albretekoak, hartu zuen haren lekua. Erregina honekin erresumaren maila kultural eta intelektualak gorakada handia egin zuen. Protestante egin zen eta Joanes Leizarragari liburu sainduak euskara zitzan agindu zion.

Erregina handia 1572. urtean hil zen, eta bere seme Enrikek, Enrike III.a Albretekoak, hartu zuen erret aulkia. Frantziako erregearen arreba batekin ezkondurik, berari egokitu zitzaion errege frantsesa

hil zutelarik, Frantziako koroa bereganatzea Enrike IV.a izenaz. Handik aurrera ez zuen inoiz ezer begiratu Nafarroako Erresumaren alde. Bere ondorengoek nafar erresuma librearen lurraldeak frantses estatuaren barruan kokatu zituzten, eta horrela bukatu zen nafar errege-erreginen ametsa. Nafarroa galdua eta zatikatua gelditu zen Espainiaren eta Frantziaren artean.

Baina zer gertatu zitzaion Otsoa Zalgizeko erail zuen gazte salduari? Fraide alkimista hiltzean, inork ez zuen sabotajea izan zela pentsatu, eta istripua izan zelakoan ez zuten errudunik bilatu. Ahal bezain fite, gaztea Iruñerantz abiatu zen bere traizioaren ordainaren bila. Iruñean espainiarrek agindutako dirua eman zioten, eta horrela, poz-pozik, gazteak bere bideari berrekin zion patrikak urrez beterik zeramatzala. Traizioa egin zuenak ez zuen inoiz pentsatu berari gauza bera egin ziezaioketela. Iruñeko harresietatik irten bezain pronto, espainiar erregeordeak bere sikarioak bidali zituen gaztearen atzetik, emandako dirua berreskura zezaten. Erreniega mendiko bidetik barrena zihoala, zelatan gorderik itxaroten zuten sikario haietako baten geziak bizia kendu zion.

Bertzeren lau poema

Carmina, I – XI

Horatio

Ez galda, Leuconöe, niretzat zer gordetzen
ote duten jainkoek –biraoa bailiteke–,
zer zuretzat. Ez jo aztiengana erantzun eske.
Datorrena datorrela, onar dezagun;
Jupiterrek negu anitz eman liezazuke oraino,
baina, orobat, Tirrenoko uhin bortitzek
harkaitzei aitzi aurtikitako hau dateke azkena.
Izan zaitez zuhur, isuri arnoa; bizia labur-labur izaki,
utz esperantza bazterrerat; solasean ari garelarik,
inbidios, denbora aitzina doa fite: atxik oraina!
eta geroari inolaz ere ez fida.

Egun-urratzea

John Donne (1573-1631)

Geldi zaitez, maitea, eta ez ohetik altxa!
Argi-leinuru hau zure begietatik heldu da;
Ez, ez da eguna urratu, baina nire bihotza,
Zeren elkarrengandik banandu behar gara.
Geldi zaitez, mesedez, bizi-poz hau guztia
Jaio orduko betikoz ez dakidan akaba!

Goizean goiz monastegitik abiatzerakoan

Lu Yu (1125-1209)

Ohean etzanda, lo, tximeleta bat nintzela
egin dut amets. Oilariteak
iratzarri egin nau danbada batek bezala.
Eguzkia jalgi da mendi lainotsuen artean.
Urrutiko basoak lanbroan gorde dira.
Ene bakarraldi luzea amaitzen ari da. Ezinegona
atzera dator. Monje irribarretsuek
loretan dauden mertxika-adaxkak
bildu dituzte opari batekin diosala egin
nahi didatelako. Baina agur-kopa batek ere
ez luke ene bihotza altxatuko gaur, zorigaiztoko
mundu batera itzuli behar dudan egun honetan.

Etorri eta izan zaitez ene edredoia

Lars Hulden, Jacobstad (Finlandia, 1928)

Etorri eta izan zaitez ene edredoia.
Elurrak estaliko duen lurra nauzu.
Etzan zaitez emeki nire gainean, ene elur hori.
Bat egin dezatela zure aho eztiak eta nireak.
Izan bitez zure bularrak elur metak ene bihotzaren gainean:
elur horrek galaraziko dio ene bihotzari izozten.
Utziozu zure izterren barne leunari
nireen kanpo latzaren gainetik lerratzen.
Eta utziozu ene pottoka zaluari zure zalditegian sartzen.
Bide luze-luzea egin du trostan
eta joka ari da zure atean muturraz.

AMAIA ITURBIDE

Ahateen balleta

Itziar Oizek ondo gogoan du, memoria sakona baitzuen, duela zenbait urte gertatu zitzaiona. Gelan entzerratuta zegoen, armairu enpotratu bat bezala. Handik ateratzea ondo errotutako hagin bat erauztea baino zailagoa zen, katu bati maindireetatik desitsastea baino ezinezkoagoa. Dena iruditzen zitzaion hila: telefonoa, urmaelaren gaineko hosto lokartua; ordenagailua, burmuin anestesiatua; gelak, zuloak… Baina azkenik etxetik irtetea lortu zuen. Egun motela zuelako, ileapaindegira joatea erabaki zuen. Ileapaindegia laket zitzaion, ilea orrazten zioten bitartean Anbotoko dama zela uste baitzuen, burua inon gelditu gabe hegaz zebilkiola eta zebilkiola. Eta honek guztiak gogoa bizkortu ez ezik, irudimena anizten zion eta irudimenaren bitartez gauza bitxiak bururatzen zitzaizkion. Egunkaria irakurtzen ari zela, inoiz egiten ez zuena egin zuen: ikuskizunen iragarkietan arreta jartzea. Bereziki, batek begia jo zion, Coliseo Albian ematen zutena: "Ahateen balleta" deitutakoa.

Ondo gogoan du zertan izan zen ikuskizuna xehetasun guztiekin, urteak aurrera joan arren. Hitzaurre gisara bi pertsonaia, Elena Cardoso eta Ainhoa Etxeberria, agertzen ziren oholtza gainean, nork bere istorioa kontatzen.

Elena Cardosok Amazonaseko oihanean igaro zuela haurtzaroa esaten zuen. Bortxaz zabaldutako lorea zirudien abuztuko goiz batean heldu zela hara, ibaian zehar hainbat kilometro jitoan egin ondoren, hosto mardul baten zurtoinak traba egin eta zegoen egurrezko kaxa ertzerantz bultzatu zuenean. Biren bat hilabete izango zituen, eta, aipatu bezalaxe, era axolagabean jositako hala-moduzko egurrezko kaxa baten fereka latzak izan ziren mundu honekiko bere aurreneko harremanak. Begitarte Gurutzatuak deitutako tribuaren eskuetan erori zen gero: haiek hazi eta hezi zuten. Hoztutako erraustetan gorputz osoa basitutakoan, goiko ezpainetan zauri bat egin eta zauri horretan bustitako odolaz eta lantzeta batez kopetan zuzi itxurako marrazki

bat grabatu zioten. Isuritako negar malkoen erritmora lehortu zitzaion estigma. Ahuntz esnez, suge odolaz eta fruitu tropikalez elikatu zuten eta okertzen zen bakoitzean, zilbor-hestearen antzeko erro batekin zigortua izaten zen, bizkarrezurrean eta belaunetan zist-zast etengabe eraginez. Bizar Beltz buruzagiari berak egindako zerbait (ehizakiren bat harrapatu edota koko bat erdietsi) laket zitzaionean, ordea, honek anbarrak ziruditen gozokien saria ematen zion, ipurmasailetan atximur atsegin batzuekin batera. Gero, aldare moduko enbor baten gainera igoarazita, hantxe hamarren bat minutu edukitzen zuten, piztu berriko sutzarren inguruan tribuko partaide guztiek garaipen soinuak zerura igortzen zituzten bitartean, ulu malguak. Izan ere, berak askoz lehenago ikasi zituen bananak eta ananak zuritzen, gonak janzten eta jaketako kremailerak zabaltzen eta ixten baino, kameleoiei begiak ateratzen, panpinekin jolasten baino, basapiztien erraiak eguzkitara jartzen eta lehortzen, bide ilunnahasietan ibiltzen baino.

Lau trapu zarpailtsu soinean jarrita, kolore biziz zeharkatutako makila eta makila puntan zegoen tximino garezurra lagun, goiz-goizetik ateratzen zen egunero bakarrik bizi zen buztinezko etxolatik, eguzkiaren aztarna hondoratua beste gidaririk ez zeukala. Badaezpada ere, bizkar zorro bat ere bazeraman erretxinaz bustitako geziz. Bere izen-abizenari zegozkion inizialak bizkar zorroaren ezkerraldeko izkinan zeuden azkazalez karrakatuak. Bizkar zorro horrek behin baino gehiagotan salbatu zion bizitza, horregatik estu-estu atxikitzen zion gorputzari, kanpoalde hartan urte askotan ezagutu zuen bihotz bakarra izan zitzaiolako, ezkutatu ahal izateko harkaitz bakarra izan zuelako. Oihaneko gau sakonetan ere edozein zuhaitz orporen kontra bermaturik, buruko bakartzat izan zuen, bere taupadak entzuten zituen belarri bakartzat. Horregatik Bizar Beltzek bi urte bete berritan zizelkatu zion zurezko kutunari baino gehiago nahi nion, beti sandaliaginean aritzen zen Petalo Urdin tribuko mutil nagusiak lau urte zeuzkala, oparitu zizkion sandaliei baino gehiago nahi zion.

Honetaz gain, oihanak makillatu eta karatula betirako itsatsi zion, baita jantzi tatuatua ere: ispilua oratu eta sugegorri baten mihia bezain hezea zeukan, gorputza basiliskoarena bezain berdea, irribarrea krokodiloarena eta bizkarrezurrean zehar iguanarena bezalako gandorra.

Behin, ilunabarra hasierara itzultzen den une ilun misteriotsu horretan andre zahar-zahar bat atera zitzaion bide erdira. Hostaila mardul batetik jauzi egin zuen, jauzi ikaragarria, bazirudien mendeetan lo zorroan eta giltzapean egondako apoa zela, zeren bat-bateko bere agerpenarekin oihanaren krosko osoa taupada betean lehertu egin baitzen. Erroz txirikordatutako labirinto hartan zaharra oihaneko beste aztarna bat zen eta horren arabera jokatzen zuen: izerdi zorrotadak zerizkion eta goraipamenez egindako hizkuntza arrotz bat murmurikatzen zuen bitartean, noizbehinka kutsu barregarrizko mehatxuak ere tartekatzen zituen. Zaharrak berdeak zeuzkan begiak, berdea arnasa eta berdea bihotza. Zerbait azpimarratu nahi zuenean, sudur zuloak asko hanpatzen zitzaizkion, ahuntz kokotsa are hezurtsuagoa bilakatzen, betortzak nabarmen luzatzen eta errieta tonua ezartzeko koiote auriak bezalakoxeak igortzen zituen. Horregatik egin zion Elena Cardosok atzerantz behin baino gehiagotan, nahiz eta zaharrak eskorpioi atzapar eskuez oratu nahi izan zuen. Deabrua zela eta berarekin itun bat egin nahi zuela esan zion, zeren kopetan zeukan zuzi itxurako marrazkiak bere taldekoa zela salatu baitzuen. Mila lehoiren sukarra nabaritu zuen une horretan Elena Cardosok, ez baitzekien nola asimilatu zaharraren, deabruaren edota dena delakoaren hitzak, baina ez zuen fitsik esan. Batbatean gormutu zen eta begiak enbor baten azalean

tinkatu zituen, inoiz ez bezala tinkatu ere. Kopeta hurbildu zionean, golko aldetik gelatina berde bat aterata, sugarra pintatu zion zaharrak mantso-mantso, bizitzan bakarrik behin edo birritan zerbait garrantzitsu egiteko hartu ohi den mantsotasunaz.

Sugarra pintatuta edukita ez zuela tamalezko ezer nabaritzen sumatzerakoan, zertxobait lasaitu zen eta zaharrak, berriro ere, bera arakatzeari ekin zion: bris-bris egiten zion tuak ezpainen artean eta halako batean bare edo barraskiloren bat irtengo zitzaiola pentsatu zuen Elena Cardosok. Hautemate horren ostean, kolore biziz zeharkatutako bere makila inoiz baino tenteago eta bermeago jarri zuen eta makila puntako tximino garezurrari barre egin zion. Tximino garezurrak berehala itzuli zion barrea.

Nerabezaroa heltzerakoan, Brasilgo kaleetan zehar ibili zen izeba Matilderekin batera eta laster izan zuen edabe exotikoen eta zorte algebraikoaren berri, azkar baino azkarrago antzeman zuen halabeharraren aztarna zokorik zikin eta lizunenetan. Zailtasunak zailtasun, azkenean, ostots bakoitzaren mezuan irakurtzen ikasi zuen, gorputz hilduratuen eta sakrifikatuen gurutzeetan, planeten musika isilean eta konstelazioen ifrentzuan. Era berean, azazkal moztekoak bezala ixten ziren ilunabar haietan eta etorkizuna sarri erabakitzen zen harresi gangrenatu haien artean zapore mingotsa ezagutu zuen, eta baita narrastien laztanak zein kartel errukigabeak bezalako begitarteak ere. Ispilu iluneko kale haietan pertsonaia eta egoera anitz ezagutu zituen, geroxeago eta betirako barruan gelditu zitzaizkionak. Ibilaldi hauetan guztietan beti zeraman aldean katanarrua, zeren ikasi baitzuen oihaneko bizkar zorroa bezain beharrezkoa zuela, bizitza hartatik onik atera nahi baldin bazuen, behinik behin.

Hamabost urterekin hainbeste oihan eta hainbeste arriskurekin begitartea zahartuta zeukala aitortu zien Coliseo Albiako ikusleei. Zahartu zela batik bat larmintza gaztetzeko eta kopetan zeukan zuzi itxurako marrazkia ezabatzeko kirurgia estetikoa egitea erabaki zuenean. Larrutik ordaindu zuela hura guztia. Sismografo zoroa zirudien bisturi hark aho sabairaino ez ezik, sudur barrunberaino eta laringeraino ere sartu ziotela eta baita hortzen, haginen, letaginen eta gainerakoen artean ere. Ebakuntza arrakasta hutsa izan omen zen. Aukeratu bat zela esan zioten, pribilegiatu bat, ordutik aurrera ez zela hainbestean dauden horietariko bat izango, baizik-eta ZAGAT bat (Zuhaitzen Adaburuak Garatzeko Antolatutako Taldea). Gero zenbait farmako (antidepresiboak) eta bonu batzuk luzatu zizkioten.

Ebakuntzaren ondoren, aurpegia itxura batera politagoa zeukan, bekainak markatuagoak eta depilatuak, aspalditik zeukan rictusa desagertu zitzaion, begi inguruetako azal tenkaketari egoki iritzi zion, baina irribarre xume bat egiten hasi zenean, ez zen iritsi eta keinu trakets bat baino ez zitzaion atera.

Etxean zela eta komuneko ispiluaren aitzinean, ustekabea erabatekoa izan zen: Estetika Klinikan luzatu zioten ispiluaren aurrean ikusi zuena eta etxean ikusten ari zena desberdina zen. Ñabarduretan zegoen koska. Bekain fotodepilatuen ingurua gorrixka zeukan, kentzen ez zitzaion azkurarekin batera, ezpainak kanpoaldetik ederragoak ziren, zehazki esateko, bi sandia xerra bezain sentsual. Horren ordainetan, ordea, mugikortasun arazoak jasaten hasia zen, begi aldeetan zimurrik ez zeukan, baina azpiko markak eta orbanak agertzen zitzaizkion, argi kontra jarrita zeharo nabarmenak zirenak. Masailak marmolezko bi kopa bezain distiratsu erakusten zituen, baina mauka-mauka jaterakoan, masailezurretan mina sentitzen zuen.

Izan ere, asteak aurrera joan ahala, beste ustekabe batzuk agertzen joan ziren: ez zuen benetako malkorik isurtzen, plastikozkoa baizik. Itsulapikoetan txanponak sartzen diren moduan erortzen

zitzaizkion malkoak. Negar egiteari uztea erabaki zuen. Usaimen zein dastamen papilen ahalmena motelduz joan zitzaion eta jangartxu bilakatu zen.

Azterketa mediku bat egitea pentsatu zuen Elena Cardosok, baina lasterregi zen horretarako, gainera erruaren eta erridikuluaren arteko sentsazioa nabaritzen zuen zama bat bezala garraiatzen, zeren, azken finean, begitarte ebakuntza hura berak nahi zuelako izan baitzen. Hau gutxi balitz, auzo batekin izandako elkarrizketak hortzak erakutsi zizkion: ahoskatzeko garaian sudurkaritasuna erpineraino heltzen zitzaion, ahoarekin baino gehiago sudurrarekin hitz egiten baitzuen. Azentuak ez zituen desberdintzen, ezta bokal zabalen eta itxien artekoak ere eta kontsonanteen ahoskerari dagokionean, akatsak ere bazeuzkan. Bere ahoak tekla batzuk falta zitzaizkion piano bat zirudien. Antidepresiboak hartu eta bonuak ikuskatzeari ekin zion: haietariko batean logopeda baten helbidea zetorren. Asko pentsatu gabe, deitu eta hurrengo egunerako bazeukan ordua hartuta.

Hasieran laringologiari atxikitako arazoez ziharduten ikastaroan sailkatu zuten, baina, azkenean, dislexia zein afasia tratatzen ziren arloan sartzea erabaki zuen zuzendariak. Gerora gogoratu zitzaion bi “b” ezpainbikari ozenen arteko desberdintasunetan murgiltzerakoan (eta berdin “t”-aren kasuan) sortzen zitzaion nahasmena. Gainera, irakasle haietariko batek kontsonante belarrekiko sekulako atxikimendua zeukan, inoiz ulertu ez zuena, beste batek, berriz, hobikariekiko. Gero, idatzizko ariketak zetozen, transkripzio fonetikoak. Logopedia zentro hartatik edota fonetika zein fonologia ikastaro haietatik dentistara bidali zuten eta han zelai hesi bati edota behi zein asto baten hortzeriari jartzen zaion bezainbesteko arreta jarri zioten, hau da, hutsaren hurrengoa. Honek guztiak erru sentimendua areagotu zion, ahoa aldez edo moldez egunero erabili beharrekoa baita.

Negar egin nahi izan zuen, baina debekatuta zitzaion. Irribarrea ere ezin. Bizitzaren alorrak murriztuz joan zitzaizkion. «Baina zagat bat naiz» esaten zion bere buruari erdi etsita. Ebakuntzatik hiru hilabete igaro ostean eta azterketa medikuaren aitzakiatan, Estetika Klinikara hurbildu zen. Aho arazoena kontatu zion medikuari eta horrek ez zuela garrantzi handirik esan zion, antidepresiboak hartzea horrelako egoeretan normala zela. Autoestimurik gabe ikusten zuenez, lehiaketetara aurkeztea animatu zuen medikuak, baina labirinto hartan ez sartzea erabaki zuela esan zien Elena Cardosok Coliseo Albiako ikusleei.

Jarraian, Ainhoa Etxeberriaren txanda izan zen. Bizkaiko baserri batean jaio zela esan zuen, erditik erreka fin bat igarotzen zen baso batean eta horregatik zeukala katagorri bihotza, txikia bezain alaia. Eta horregatik gustatzen zitzaizkiola hainbeste txoriren kantuak, harri koskorrekin jolastea eta abar puntez mezuak idaztea lurrean eta zuhaitz enbor zuritu berrietan. Zentzumenak oso zoli zeuzkala, berehala nabaritzen zuela sugegorri batek ziztada egingo zuen edo ez eta kilker harrapaketan trebea zela. Betidanik ezagutu zituen ahuntz zintzarrien hotsak, ardi balakak edota bero saparen eraginez idiak ufaka-zanpaka. Horiek zirela bere haurtzaroko hotsak eta sinfoniak. Ilargiak zilar zaporea zeukan bere esanetan eta eguzkiak, berriz, kalabazarena. Basoa baino oihal brokatuagorik eta lozorro sakonagorik ez zegoela zioen, harribitxiz ereindako tunela zela basoa gauez eta egunez, aldiz, hegal gatibua, xarma hori zeukala. Urrutitik ikusita, aztalka-maztalka dabilen ume zirtolaria zirudiela, gerturatuz gero, ordea, totem bati dagokion begirunearen itzalpe handian edonor biltzen duela. Horrelakoxea zela basoa. Ezaugarri eta ahalmen ezkutuak gordetzen zituela bere baitan, baina baita zauri eta orbainak, odola eta herdoila ere. Pozoitsua zela, baina oparia ere eta nahi eta ahal izanez gero, zakarra eta

jenio txarrekoa baldin bazen ere, besteetan oilo larru bipildu baten gisara gelditzeko moduko herabetasunik ere bazeukala. Basoaren misterioak horiexek zirela. Honengatik guztiagatik, basoaren zutabeari zetxekiola, suak egurrari nola, aitortu zuen. Hau hain zen horrela, ezen etxean zegoenean, sarritan egongelara edota sutondora joan beharrean, basora joaten baitzen.

Basoaren gertutasun erabateko honek zura eta zurgintzan dihardutenekiko jaidurara eraman zuen Ainhoa Etxeberria eta horrela, etxetik hurbil zegoen aroztegian orduak ematen zituen. Bertako arotzaren ile kizkurrak txirlorak bezain malguak ziren, gorpuzkerak plastilinazkoa zirudien eta giharrak guztiz moldatuak zeuzkan. Hatzetan noizbehinka atera zitzaizkion azkordinak ere bigunak ziren. Batzuetan txakur aspergarri eta sagu kuxkuxero bat bezala zebilen oholen artean ziztuka. Janari dendetako saltzaileek bezalaxe arkatz gorri lodi bat zeukan, belarri atzean jartzen zuena idazten edota marrazten ez zuenetan. Arkatz gorri haren bitartez zizelkatuta zeuzkan hain garrantzitsuak zitzaizkion zirkulu kontzentriko haiek. Honetaz gain, hautsa zein zerrazahia ezabatzeko xedez lau birika balitu bezalako putzaldiak jaurtikitzen zituen. Baina harrigarriena Ainhoa Etxeberriarentzat ohol moztu berriak ziren, izozki miazkaden laztanak bezalakoxeak zirenak, bidaiari nekatuak bailiran basamortuaren erdian etzaten diren oihalen pareko haiek.

Bestaldetik, haurtzaroa ume gehienak bezalaxe igaro zuen: katu joareen eta txokolate ontzen atzetik, bildots saiheskiak marruskatu eta tortolosak biltzen, fruta hezurrekin edota zirrikitutik zirrikitura eta behatxulo batetik bestera. Nerabezaroan marmitarekin esne epelaren eta otarrearekin arrautzen bila joatea izaten zuen eginkizun edota basora marrubitara eta zizatara hurbiltzea, eskualde hartako nerabe gehienak bezalaxe. Baina ume gehienek ez bezala, Ainhoa Etxeberria ezin izan zuen antxintxika egin inoiz eta nerabe gehienek ez bezala, ezin izan zuen basotik kilometro batera zegoen gazteluko dorrea eskalatu.

Izan ere, jaio zenetik oinak estalita eraman zituen beti, ohean eta udan ere bai. Lotarako txapinak erabiltzen zituen, kalerako ardi larruzko botinak eta errekan sartzeko, berriz, plastikozkoak. Hori zela-eta, esamesak beti eduki zituen aldamenean (ezkatazko oinak zeuzkala, atzaparrez hornituak…). Askotan sentitu zen baztertuta, ataritxakur batenak bezalako hitz elkorrak sarritan entzun behar izan zituen eta askotan sentitu zen arrotz, argizariaren sugar dardaratia bezain, haize boladek jipoitutako hostoaren pareko.

Gainera, botinak neurriz egindakoak zirenez, zapatariarengana joan behar izaten zuen urtean bi alditan eta bidaia horren haritik denetariko susmoak eta istorioak harilkatzen ziren herrian. Honengatik guztiagatik hankaz gorako tripode trufatu bat bezala gelditu zen. Besteetan zelatan aurkitzen zuen herriko jendea ate osteetan ezkutatuta, sastraketan, kaleko izkinetan eta basoko bihurguneetan edota zuhaitz enborren atzean ez ezik, adarretan igota ere. Taldeak ere antolatu ziren bere urratsak orpoz orpo jarraitzeko.

Garai hartan gauza guztiak bi alderdi dauzkatela ikasi zuen: girlanda arantzazko koroa ere izan daitekeela, lepokoa uhaleria, zilarrezko eskumuturrekoa, berriz, burdinazko katea… Begiradazko aiztokadak ezagutu zituen, bizkarrak samaldaka. Behin Ainhoa Etxeberria aspertu zen bizitza hura eramateaz eta, horrela, ekaineko arratsalde batean errekara oinutsik hurreratu zen: bai, ahate oinak zeuzkan. Erreka alde horretan ahateak bildu ohi zirenez, ez zen besteengandik desberdin edo arraro sentitu eta aspaldiko partez lasaitasunezko arnasaldia hartu zuen. Ez zen gutxirako. Hogeita lau urte zeuzkanean, isekak zirela-eta, herritik alde egitea erabaki zuen. Gainera, bere desberdin-

tasun hori munduari erakustea ez legokeela txarto pentsatu zuen.

Elena Cardosok katu begitartea edukitzearekin amestu zuen maiz eta unerik larrienetan begitartea estoldara botatzeko ideia ere bururatu zitzaion noizbehinka. Ainhoa Etxeberriak arrain izan nahi zuen eta egunik beltzenetan hankarik gabe jaio izan balitz, hobeto legokeela uste izaten zuen.

Elena Cardosoren eta Ainhoa Etxeberriaren bizipenen ondoren balleta etorri zen aspaldiko Coliseo Albia hartan. Berrogeiren bat lagunek (Elena Cardosoren ahate aurpegia eta Ainhoa Etxeberriaren ahate hankak zeuzkatenak) balleta dantzatu zuten. Amaieran txalo zaparradak egon ziren. Gainera, debuta zenez, horrek esangura gehiago zeukan.

Horretaz gogoratu zen Itziar Oiz 2009ko abuztu arratsalde hartan, Coliseo Albia zegoen lekuaren ondotik igarotzerakoan (orduan obratan zeuden). Bilboko jaiak zirenez, kalean sentsazio indartsuak eta erritmo fanatikoak zaku berean sartzen ziren zirimolaka, burrustan. Ibai mardulak ziruditen kaleek, pauma buztanak, mihi gordineko iragarkiak. Paradisu-koloreak zorrotadaka, koktel izugarriak eta serpentina-zaparradak isurtzen ziren han eta hemen. Giro hartan ahate kontuak are ahateago bihurtzen ziren. Izan ere, Itziar Oizek bere begitarteaz eta oinez hausnartu zuen. Lehen masailak bi bular gazte bezalaxe zeuzkan, sudur puntak mendi tontor lurmendu berri zirudien, betazalek orraztutako zelaiak, baina hainbeste lifting eta azal txertaketaren ondorioz eta, batez ere, betazalen segmentuen transplanteagatik begitartea pisutsua zeukan. Oraindik ere, ziztatutako jostorratzen eten-puntuak eta masailezurraren zein kokotsaren inguruko zimurren tenkaketa nabaritzen zituen, bisturiaren erloju orratzak antzematen. Begitartea eraikuntza hauskorra dela ondorioztatu zuen, baina, batez ere, bizi esperientziengatik gelditu zitzaion ahate begitartea ardura zitzaion. Hankei dagokienez, lehen ematen zituen urratsak ziurrak ziren, bide bakarrekoak, baina debekatutako hainbeste esparru zeharkatu ondoren, sakabanatu zitzaizkion zeharo eta kontrolik gabe. Oinei begira jarri eta noraezean induskatzen eta induskatzen ari ziren bi koilara zirela iruditu zitzaion, bi hego ilun, inkognitatik zintzilik eta hipotesiaren bidean zirelarik. Izan ere, ahate oinak gelditu zitzaizkion. Dena dela, Coliseo Albian ikusitako ballet hark askotarako balio izan zion Itziar Oizi, zeren, hain zuzen ere, ahate haiek bezalaxe zailtasun guztien gainetik eta bizitzaren beraren gainetik dantza egitea erabaki baitzuen.

JABIER KALZAKORTA

Etxahunen *ofizialenak* khantorearen bost ahapaldi gehiago

SARRERA

"Ofizialenak" kantaren bi aldaera argitaratu ziren hemeretzigarren mendean. Francisque-Michelek, 1857an, *Le Pays Basque* delako liburu zoragarrian eta Salaberrik 1870eko *Chants populaires du Pays Basque* kantutegian. Bi autoreek kanta horren ahapaldi zenbait eman eta iruzkindu egin zuten frantsesez[1]. Kanta osoa, ordea, ez zuen batak ez besteak eman. Lehenak bederatzi ahapaldi eman zituen argitara eta bigarrenak hamazazpi. Haritschelharrek, beste iturri batzuk kontuan harturik, –Sebastian Epherrerena, batez ere–, guztira Etxahunen khantore honen hogei ahapaldi beren aldaerekin argitaratu eta iruzkindu zituen. Ez dakigu, ordea, kanta honek bere jatorrian zenbat ahapaldi zituen[2].

Kantaren mamiari gagozkiola, ahapaldi bakoitzaren hasieran langile baten berri ematen zuen Barkoxeko bardoak: laboraria, artzaina, dendaria, irulea, dantzaria, taharnaria eta abar. Ahapaldi bakoitzean, beraz, kritika zorrotz bat egiten zion ofizial bakoitzari. Etxahunen estilo zorrotz eta mingotsaren erakusle ezin hobeak dira, dudaren izpirik gabe, ahapaldi guztiak. "Ofizialenak" kanta René Lafonek zein Jean Haritschelhar euskaltzainak diotenez, Etxahunen kanturik ezagutu bezain ederrenetako bat da[3].

J.D.J. Salaberriren beraren paperen artean, beste sorta polit bat aurkitu dugu. Bost ahapaldiko sorta hori, guk dakigula, inon argitara gabekoa da. Etxahunen ahapaldi hauek, gure ustez, apurren bat Nafarroa Behereko euskararen ezaugarrietara moldaturik daude. Gure lantto labur honetako helburu nagusia sortatxo horretako bost ahapaldiak argitara ematea izango da. Ez dugu, hitzez hitz, xeheki eta pausatuki, bost ahapaldi horietako aditz, hitz eta abarren zehaztasunak emateko lekurik.

GAUR EGUNEKO GRAFIAN BOST AHAPALDIKO EREDU BERRIA

Guk hona dakartzagun bost ahapaldiek Barkoxeko euskaran dute beren jatorria. Jatorrizko aldaera, ordea, gorago esan dugunez, sartalderagoko euskarara egokitua dago. Bestela esan, guk kontsultatu dugun Salaberriren kaier osoko kantuak batez ere baxenabartarrez transkribaturik daude. Etxahunen eredu hau ere hango euskarara egokiturik dagoenez gero, Barkoxeko euskararen ezaugarri zenbait ezabatuxeak izango ditu. Hona ortografia gaurko erara:

I

Laborari gaixua, oihanerat badua,
argia gabe janik xardin kaskua.
Galtxa xarrak dituk bortz galtxa pheratxu,
xilorik ezpaduk, kontent behar duk.

II

Aitun seme horrek urhez ditik botoinak,
epher eta jiga janharitako,
hantik bihamunian hamarretan ohian
ajutaren aidürü, kaka egiteko.

III

Arotzaren adreta, egiten deret potreta!
Axkora xaharretik jorrai berria.
Burdiña suian bero-bero, kalafikaz phika gero,
Soberakintto hura, xokorat gero.

IV

Eiherazain gaizua, kargaturik astua!
Bizkarraren erdian, zorro handia.
Lakhatzen du ederki, bati biga idoki,
Kokotsa xilo diela bihia ixuri.

V

Auxer eta notari heiek nesesari!
Asindetan phikota, gaitza den bezala.
Jiten zauzkit etxerat desohore egiterat,
Je[i]nkoak kondena ditzala galeretarat.

Atal honetan ez gara testua Zuberoako euskarara ekartzen ibili. Hango ahoskerara egokiturik, *urhe* hitza, esaterako, "ürhe" jarri beharko genuke. Badakigu Etxahunen kantu zenbait Zuberoako mugak gainditu eta Baxenabarren ere kantatzen zirela[4]. Bost ahapaldi hauek diogunaren beste adibide interesgarri bat dugu, dudarik gabe.

Ahapaldiak tolesteko ere, bestalde, eskuidatziari begira dago, ez Salaberrik, Francisque-Michelek edo Haritschelharrek egiten duten bezala. Gure ataltxo honetan dardarkari edo bibranteak bitu edo bikoiztu egin ditugu, dagokien kasuetan, Haritschelharrek egiten duen bezalaxe.

un autre. N° 19.

Labourre gaichoua, ichuréguit bardiua,
arguia gabé yanic, churidi ausuna,
gaztia churic ditue, berri gaztia phiri chiua,
chilorie ayaduro, ardaut beharduno.

Oitan dénu horrec, urhas ditic bitiuno,
ichiri ita yaga, yaurkuri tico
hunti bihurmuiuno hunuretan chiua,
ayetaren iduri, eucu ayetico

Artzuna ungura, ygaitera arit gabeta,
achorra chahuntic, yauri berria,
bardigna dauzane bere bera, ca lasecas phiscagan,
chorotchuetto hunu, chuchurat baja.

Chorazain gaicuna, aurgatzaric astuna,
beitkariren iduri, berro hundia,
Lakhutzenin idorki, beti begia idorki,
ceretza chilodiela, bihiu ichuri

Auchen ciu chotan, heyé meissuna,
assindetan phicotu, gaitzaden begala
yitan caurtit ichérut, desotone ému ituut,
yauncuna cordéna dittula, gallestarat.

(Fini)

AHAPALDIEN TRANSKRIPZIOA

Gure atal honetan ez dugu lekurik azal zein mamia iruzkintzeko. Gure ereduak agertzen duen euskara-mota ere aztergarria da erabat. Gu atal honetan batez ere ondo transkribitzen eta esangura nagusia jasotzen ahaleginduko gara.

1–*Laborari gaïchoua, oïhanérat badoua,/ arguia gabé yanic chardin cascoua,/ galtsa charac ditouc bots gailtcha phérachou,/ chiloric espadouc, content behardouc*.

Sortatxo hau ere "(Oi) laborari gaixua" hasiera duela hasten da. Eiherazaina ere *gaizua* izango da, bustidurarik gabe. Oraingo hasiera honetan, ordea, laborariak ez du ogia egiten besterentzat berak artoa jateko. Oraingo honetan oihanera joan ohi da xardina zaharraren burua edo kaskoa jaten duela, argitu baino lehen. Galtzak ere txarrak ditu dena peratxuz beteak, bost galtzaren petatxuz edo pusketaz osatua (bost zenbakia darabil asko esateko). Galtza adabatuen kontua artzainari egozten zaio argitaratutako sailean. Hemen, gure ustean, hasieran hika behar luke *oihanerat bahua* edo *oihanialat bahua*, gero ere hika egiten duelako eta beste ereduetan ere hika ematen duelako.

2–*Aïtun Sémé horréc urhés ditic botoïnac,/ éphér éta yiga, yanhari taco/ hantic bihamounian hamarétan ohian/ ayutaren aïduru, caca éguiteco*

Aitonsemea ez da agertzen oraindainoko ereduetan. Gure ahapaldi honetan urrezko botoiak ditu aitonsemearen janztekoak; jan gauzarik gozoenak ere jaten ditu aitonsemeak, eperrak eta jigak, hurrengo egunean, ordea, ajuta behar du libratzeko. Ajuta[5], kristala edo labatibaren kontu hau beste k(h)antore batean ere agertzen da. Halaxe da, ahapaldi hau erabat interesgarria dugu, Etxahunena berarena dela erakusten digun froga eta berme sendoa. Gaiari dagokionez, "Gaztalondoko prima" k(h)antorean agertzen den laugarren ahapaldiaren berdin-berdina da. Ahapaldi honetan jaun aberats batek, primaren mediku edo barberak, afarian kapoiak eta oilaskoak jaten ditu amorante aberatsarekin, eta, gero, ohean lo geratu den senarrari, emazteak labatiba ematen dio afariaren ur-hondakinekin[6].

3–*Arotsaren adressa, éguitenderet potréta/ achcora chaharétic, yoraï berria,/ bourdigna souyan béro béro, calaficas phica géro,/ soberakintto houra, chokhorat béyo*.

Hemen *arotza* errementaria dugu. Etxahunen eredu argitaratuetan arotzaren ahapaldia badagoen arren, ez da honen berdina. Ahapaldi honetan "adressa" delakoa ezin da izan inola ere frantsesezko "adresse". Testuko *adressa*, inolako dudarik gabe, *adreta* izan behar du. Aldaketa honen arrazoia seigarren ahapaldian agertzen den "adreta" hitzak ematen digu (*Harri egiliren adreta!)*. Era honetara, esangura edo zentzua irabazten du, hoskidetasuna bete-betekoa egiten baitu *portreta* hitzarekin[7].

Etxahunen estiloaren erakusgarri aparta dugu ahapaldi hau. Aizkora zahartu ondoren jorrai txikia egiten du arotzak, horretarako burdina berotu, goritu eta gero tresna baten bidez moldatu egiten du. Soberakinttoa, hau da, soberakoa edo enparadua lurrera bota ohi du.

4–*Eiheraçaïn gaïçoua, cargatouric astoua,/ biskararen érdian, Sorro handia,/ Lakhatsendou éderki, bati biga idoki,/ cocotsa chilodiéla, bihia ichouri*.

Eiherazain edo errotaria ofiziale berria da. Ofiziale honi jartzen dion adjektiboa bestetakoa da: *gaizoa*. Ofiziale honek, bestalde, "gaizoa" izateko ez du motibo handirik. Kontrara ironiaz esana da eiherazaina errukigabea delako. Errukigabea da astoa zorro handiz kargatzen duelako, eta lapurra ere bada –errotari askok izan duten fama, jakina– dagokion laka edo menda baino handiagoa hartzen duelako eiheramenetik edo arto-irinak eihotzetik. Irintzen edo ehoten duen hamarreko bat da, gehienetan, errotariak kentzen, lakatzen edo idokitzen duena. Hemen bateko bi lapurtzen du. *Kokotsa*, bestalde, eho behar den errotako ontzi baten iraganbidea edo zuloa da. Ontzi horretatik, kokotsetik zehar, joan ohi da gari-alea edo artalea, eho ondoren, irin-askara[8]. Gari-alea irindu gabe joaten bada irin-askara, eiherazainak bere lana gaizki egin duelako da, inolako dudarik gabe.

5–*Aucher éta Notari héyéc néssesari,/ assindétan phicota, gaïtça den béçala/ yiten caöuskit etchérat, désohoré émaïtérat,/ yencouac condéna ditsala, gallérétarat*.

"Auxer eta notari heiek nesesariak" argitaratutako aldaeratan ere agertzen da. Haritschelharren eredu nagusian 17-*Sarjant eta notariak/ Oi! arnes nesesariak* irakurtzen da. *Sarjant* delakoa "huissier" da frantsesez, "ujier" gaztelaniaz. Hasiera honezaz landa, gainerako guztia ez da bestetan agertzen. *Assindetan phicota*, ganaduan – "azienda" hemen ganadu zuria da, batez ere "ardi(-jende)a"– phikota "viruela" gaitza izatea da. Galeretara kondenatzea heriotza ziurrera kondenatzea zen, garai batean. Hala kondenatua izan zen, esaterako, Azparneko Martin Larralde "Bordaxuri".[9]

ONDORIOA

Lan labur honetan bost ahapaldiko sorta edo testigantza baten berri eman nahi izan dugu. Ofizioka ofizioak eta ofizialak jorratzea kontu zaharra omen da. Francisque Michelek garai bateko trobadoreek ere egin ohi zutela dio eta halaxe izan behar da, izan den mediebalistarik handienetariko batek baitio. Eta dioenaren berme Folquet de Lunel aipatzen du adibide polit batzuk emanez. Euskal literaturan Jose Ignazio Iztuetak ere Tolosako ihauterietarako holako bertsoak eratu zituen[10]. Etxahunen konposizioak orain ezagutzen ditugun hogeita bost ahapaldi baino gehiago ere izango zituen, beharbada. Francisque Michelek honelaxe baitio bederatzi ahapaldi aukeratzean: "Voici quelques couplets choisis dans une infinité d'autres, que l'un chante pour critiquer, élever ou rebaiser les différentes professions". Ahapaldiek duten jeinu eta indarrari gagozkiola, ez dago dudarik gure bertsolari handiaren kolkotikakoak direla.

OHARRAK

[1] Francisque Michelek "Satire de différentes professions", eta, euskaraz, Arxük eman zion izenaren arauera, "Offizio cenbaiten critica". Salaberrik "Oi laborari gachua" deritza euskaraz zein erdaraz. Haritschelharrek "Ofizialenak" euskaraz eta "La chanson des métiers" frantsesez izendatzen du.

[2] Kanta honen gaineko artikulu literario polit bat euskaraz Haritschelharrek berak argitara zuen "Etchahunen mandoa", *Gure Herria*, 1960, XXXII, 221-224 or. Kantu honen iruzkin eta frantseserako itzulpena René Lafonek egin zuen "La Chanson des Métiers d'Etchahoun", *Eusko Jakintza*, 1953-1957, VII, 119-123 or.

[3] René Lafonek kantaren itzulpena egiten duen artikuluan hauxe dio: "C'est pourquoi nous présentons ici une traduction de la "Chanson de Métiers", une des oeuvres les plus justement célèbres du grand poète souletin Etchahoun (1786-1862). Honelaxe dio Haritschelharrek "L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun" *Euskera*, 1969-1970, XIV-XV, 313 orrialdean hitzez hitz: "Elle n'en compte pas moins parmi les plus connues et les meilleures de l'oeuvre du poète souletin".

[4] Jean Haritschelharrek honelaxe dio "Deux chansons perdues d'Etchahun-Barkoche" in *Gure Herria*, 1960 Urtharrila, 2-8 or. "Ce témoignage de Germond de Lavigne est extrêmement intéressant. En premier lieuil nous révèle l'ecustebce d'une chanson que personne n'a jamais recueillie; ensuiete il nous montre St-Jean-Pied-de-Port et Baïgorry et qu'elle avait un franc succès populaire à en juger par les éclats de rire de toute la jeunesse."

[5] Gaztelaniaz ere badago esapidea "dar una ayuda" laxantea eman behar denean.

[6] Ikus *Euskera* aldizkariko 1969-1970, 426-427 orrialdeak. Labatiba edo kristala ematea, bestalde, asto-lasterretako ekintza barregarri bat izan ohi zen. Hauxe da ahapaldia: *Primak bazin jaun barberarentako/ Aiharitan kapu eta ollasko;/ Senhar miserablia batian ohin lo, / Eta bestian aldiz kristelaren galtho,/ Primak ordin hur xahakinak bero/ Eta haiez eman gero*. Itzulpena honelaxe ematen du Haritschelharrek: L´héritière avait pour Monsieur le Barbier/ Chapon et poulet à souper;/ Parfois le pouvre mari dormait dans son lit,/ D'autres fois por contre il demandait le clystère;/ L'héritière alors chauffait l'eau de vaisselle/ Et lui en donnait ensuite un lavement.

[7] Bada besterik ere: "Ofiziala-ren adjektiboa" egitura bestetan ere agertzen da. Hogeigarren ahapaldian, esaterako, "dantzariaren arhina" ikusten dugu. Adjektibo hau, bestalde, substantiboaren adieran dago. "Dantzariaren arhina" delakoan, esaterako, dantzariaren "arintasuna" esan nahi du.

[8] Honelaxe dakar hiztegiak: kokotsa "Agujero de la tolva, por donde pasa el grano entre las piedras solera y molar" edo frantsesez "Bois sur lequel on fait rouler les meules d'un moulin à farine".

[9] Jean Haritschelhar, *Martin Larralde Bordachuri, Le poète-galérien.* Bayonne. Cordeliers, 1964, lan hau aterea dago *Gure Herria*, 1963, XXXV, 257-285 or. artikulutik.

[10] Bertsoen izenburua "Tolosaco gazteria prestu leialac" du izenburua. Nahi izatera jo bedi Jose Garmendiaren *Iztueta'ren olerkiak*, Kardaberaz bilduma 33, 1978, 138-139 or.


Berreaga
EZKURRA
LANDAKOETXE BARRI
Mungiara
ESKOLA
SAN BARTOLOME
ORMAETXE
ARTETXE
ELORRIAGA
ATXATEGI
BARRENETXE
SOLONDO
Artebakarrera
SARATSEKO TROKA
SAN KRISTOBAL
ZUBIETA
Derio
Geldoetara

MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN

Geldoko kaminoari ipinitako bertsoak eta erantzuna

SARRERA LEGEZ

Zamudioko Geldo auzoan jazotakoaren barri emoten daben kopla[1] batzuk dakarguz bertora, Markos Aurtenetxe zamudioztarrari jasotakoak. Lehenago be leidu izan doguz hemen dakarguzan kopletako batzuk Juan Luis Goikoetxearen *Euskaldunaren anekdotak II* liburuan[2]. Markosek emondako barritasuna, ostera, kaminoari ipinitako bertso horreeri Bustamante dalako bertso-jartzaileak erantzun modura ipinitako koplak dira, bertsoen eta jazoeraren ganeko hainbat informazinogaz batera.

Edozein testu, herriaren memorian gorde eta denporan aurrera iraun egiten dauanean, literatur testu bihurtuten ei da, eta hagaitik ekarri gura izan doguz koplok hona; baita polito be, ironia finaz, emoten dabelako edozein herritan pasau litekean, baina Geldoetan baino pasau ez zanaren barri. Bertsook daukien balioa "herrikotasuna" da, bertsoaren osaerea eta errimea baino gehiago.

ZER DALA-TA IPINI ZIRAN BERTSOOK

Indalezio Prieto bera Geldoetan izan zan. Ez zan, baina, bisitan etorri, ez bada ihesi joiala Bustamanteren lastategian gordeten. Handik alde egin orduan, inozkoan laguntasunik behar izan ezkero beragana joteko esan eutsan Bustamanteri. Azken horrek, berbea hartuta, Geldoetarako bidea egin behar izan zanean Madrilera buelta bat eginda bidea komenidu jakon lekutik egitea lortu eban. Izan be, kaminoa egitea auzoko danen amesa zan, baina batzuek Artebakarratik egin gura eben; eta besteek, Deriotik gora (orain dagoan lekutik). "Kargu hartu" dino Markosek, kaminoa egiteko Bustamantek egin ebala "kontratea" eta propietarioai eskatu eutsiela 10-15 egunean kaminoan behar egiteko. Markos bera gazte-gaztetan ibilita ei dago pintxe moduan obreruai ura eroaten.

Bidearena ez zan anekdota huts bat izan. Auzoa zatitu egin zan, politika alorrean be. Kontu egin kaminoa konsegidu ebanean,

Bustamantek Prietoren aldeko botoa eskatu ebala. Danatarik egongo zala dino Markosek, baina "generalean" holan ei zan: kaminoa egin eben partekoak errepublikaren aldekoak ziran. Besteak, ostera, "Bizkitarrak". Hainbestekoa izan zan liskarra eze urte baten, jaietan, tiroteoa be egon zan Ezkurra[3] parean. Antza, Markosek dinoanagaitik, tiroteo itzela izan zan, eta "heriduak" be egon ziran. Elorreagatarrek[4] Ezkurra elegidu eben erromeria egiteko, eta besteek han inguruko landa bat. Batzuk *Gora Euskadi* eta besteek *Viva la república*… han hasi zan liskarra. "Jente brabo egoan Geldon antza" dino Markosek.

Kaminoarena salatzeko edo bertsook ipini zituen, eta z*ituen* dinot (ez *zituan*) gure barri-emoilearen ustean egilea ez dalako bat bakarra. Bi ibili ziran bertsoak ipini eta konpontzen, nahiz eta gerora famatu dana, bertsook kantetan ibili izanagaitik eta haren izenean kantetan dalako, Bitoriano Bolunburu izan dan.

Bertsoak kaminoa egin ostekoak dira, baina kaminoa barri-barri egoala ipinitakoak. 75 urte inguru eukiko dabe gitxi gorabehera.

BERTSO-JARTZAILEAK

Bolunbururi *Santuerdi* esaten ei eutsien, sur erdia eukalako. Ez zan ostera izen bakarra, Bitoriano Bolunbururi baserriaren izenetik be deituten eutsien: *Solondo.* Horrek kantau egiten izan ditu bertsoak eta bera "nonbratzen" dala egile legez dinosku Markosek. Beste baten laguntzaz egin ebazan, baina. "Konjuntoan" egindako beharra ei da bertso sorta hau. Bertsolari laguna Ramon Aurrekoetxea zan, "tuertoa" zala-ta *Bentanabakarra* ezizenduna. Bentanabakarra Elorreako semea zan.

Antza, ez ziran horreek biak bertsoak ipinten ibilten ziran bakarrak. Bustamante be (Prieto lastategian euki ebana) ez zan atzean geratu eta *Santuerdik* eta *Bentanabakarrak* ipinitakoei erantzun egin eutsien, bai eta koplatan egin be. Bustamante Ormaetxe[5] baserrikoa zan, tabernea egoan bertan.

Geldoko kaminoari ipinitako bertsoak

Honeek dira *Santuerdik* eta *Bentanabakarrak* ipinitako bertsoak[6]:

1
(I)[7] atara behar dodaz
bertso bat edo bi,
Geldoko kaminoan[8]
eskrementugarri[9].

2
Hasi nazen ezkero
(i) ez hain baragarri,[10]
publikatzera nua
(i) Euskal Herriari.

3
Zubietan[11] jaiota
Zubietan hazi,[12]
orain nago eginde
Solondo[13] erosi.

4[14]
Hamabost urte honetan[15]
hantxe bizi naz ni,
bertsoko kontuetan
bihar[16] neuke hasi.

5
Bertsoko kontuetan
sarri ibilie,
Jaungoikoak emonda
badeuket grazie.

6
Borreu eiten ezpada
nire memorie,
esplike gure neunke
pase dan guztie.

7
Hamasei etxe dagoz
barriotxu batian,
kaminorik ez dago
legua bat bidian.

8
(I) eskatu behar zala
(i) akordeu ginian,
logreu bere egin gendun
guztion artian.

9
Nondik ekarri bere[17]
trateu einde dago;
Sagatzeko trokatik[18]
kaminoa ekarteko.

10
Injinerue bere
Señor Don Ricardo.
Handixekarko[19] dala[20]
ba (i) esan einde dago.

11
Guztiok egon ginen
papela (i) egiten,
Ricardo euki gendun
(i) eskribidu eiten[21].

12
Ederto (i) arregleute
joan ginen etxera,
denpora handi barik
ei euden[22] atzera.

13[23]
Sagatzeko trokatik
kaminoa ez bada eiten,
ez etorri gugana
kontuek egiten.

14[24]
Manuel Bustamante
urte bi honetan,
Bilbora ibili de
tripia betetan.

15
Bialdu behar gendun
aeroplano baten,
sekule bere gehiau
agertu ez deiten.

16
Barrio honetan deukuz[25]
hiru gizon reto,[26]
a zelakuak diren
(i) alkate imiteko.

17
Laugarrena deudie[27]
konseju etxian,
geuzie tratetako
tontoan artian.

18
Bosgarrena deudie
Señor Don Ricardo,
gizonak engañetan
ikisite dago.

19
Hartu ez badeu eiten
gizonaz gehiago,
puestue jagotia
kostau eingo jako.

20
Indalezio Prieto
maketo purue,
gobiernoan eukiteko
gizon koitedue.

21
Guardiek euki deude
eurretik hartute,
Bustamantek euki deu
lastien[28] ostute.

22
Hiru gizon dabiltzez
Bilbora sarriten,
diputedu sartzeko
eskolak ikisten.

23
Bata da Batiste ta
bestia Manuel,
Santos Olea bere
euren inguruen.

Honainokoak Markos Ibarluzeak kantau euskuzanak. Hogeta hiru kopla horreez ganera, Juan Luis Goikoetxearen liburuan beste hiru honeek be agertzen dira:

Hasi Derion eta
Geldoetaraino,
Kamiñoa marketa
atxinerik dago.

Gurean 9 zenbakia emon deutsagunaren atzean joan leitekela uste dogu. Hurrengoa, barriz, gurean jasotako 11.aren atzean kokatuko geunke:

Saratzetik kamiñoa
eiteko ekarri,
papelian kostata
ein euskun imini.

Akabuko bertso hau ez da gure bertsinoan jasoten:

Agur eta Adios
neure laguneri
kontentu ederrian
holantxe nago ni.

Hogeta sei kopla egiten dabe danatara gureez ganera Goikoetxeak batutako hiru horreek gehituten badeutsaguz sortari. Berrogeira artekoak dirala aitatzen da *Euskaldunaren anekdotak II* liburuan, gogoz gagoz bitxitxu horreek noiz argitaratuko diran.

AURREKO SORTARI BUSTAMANTEK EMONDAKO ERANTZUNA

Lehen be esan dogu Manuel Bustamantek (Prieto lastategian gordeta euki ostean kaminoa berak gura eban lekutik egitea lortu ebanak), *Santuerdi* eta *Bentanabakarra*ren bertsoai erantzun egin eutsiela. Hona hemen:

1
Geldon pareu ein jakuz
bertsolari on bi:
bata da Erramon ta
bestea Santuerdi.

2
Bata da Santuerdi
bestea Bentanabakarra,
behingoan ez deude eingo
kamino lakarra.

3
(I) horrek ibil deudie
(i) enpeñua alboti,[29]
kaminoa ekarteko
Artabakarreti.[30]

4
Horrek ibil baziren
artez eta ondo,
kaminoa etorko zan
danantzat ederto.

5
Bakarrik gure izen deude
(i) etxera tiretu,
horregaitik in direz
bape barik lotu.

6
Jose Elorreako da
lehengo boltserue,
kamino barik lotu
jaku gizon koitedue.

ONDORIOAK

Lehenago be aitatu dogu sarritan bertsoak bestelako kontuakaitik dirala aitatzeko modukoak, eta ez egileak darabilen teknikagaitik. Kasu honetan be halan dala uste dogu. Bertsootan nabarmendu beharrekoa da, batetik, ahozkotasunak bertsoetan itxitako inpronta eta, bestetik, jazoera baten barri emoteko egileak (kasu honetan egileek) darabilen fintasuna eta ironia.

Beste alde batetik, ezin dogu artikulu hau akabau egiletza kolektiboaren aitamenik egin barik. Bertsoak "konjuntoan" egitearenak zera pentsarazoten dau: zenbat eta zenbat bertso sorta anonimo edo izendun egongo ete dira honeek legez bikotean edo taldean egindakoak?

Argi geratzen dana, dudarik barik, hauxe: lehen bertsoa askoz kontu naturalagoa zala orain baino.

OHARRAK

[1] Koplak dira hona dakarguzanak. Gure artikulutxu honetan *kopla* zein *bertso* esango deutsegu. Izan be, barri-emoileek bertso dinoe, baina ezagun da, batez be Bizkaian, kopla moldean egin izan dala antzinatik bertsotan. Modu generikoan erabili izan dan terminoa da *bertsoa*. Hain zuzen be, gure koplak halan hasten dira: "Ipini behar dodaz bertso bat edo bi".

[2] GOIKOETXEA, Juan Luis. *Euskaldunaren anekdotak II*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbao, 2009.

[3] Ezkurra landa baten izena da. Mapan kokatu dogu. Sasoi baten bertan egiten zan San Bartolometan errepetizino eguna. Erromeria egiteko lekua aldatu egin izan da, beste landa edo baserri atari batzutara. Azken hiru hamarkadatan eskola zaharren inguruan egin da (mapan kokatuta dago lehengo eskolea).

[4] "Elorreak" esaten jako ahoz Elorriaga auzuneari. Mapan kokatu dogu. Elorriagatarrak Prietoren kontrakoak eta goiko baserrien kontrakoak ziran bidea handik egin zala-eta.

[5] "Ormetxe" dino informanteak ahozkoan Ormaetxe baserria izendatzeko. Ormaetxe Bustamanteren baserria zan. Egun erdi jausita dago.

[6] Koplak gaur eguneko grafian emonda datoz, barri-emoilearen ahoskera zaintzen ahalegindu bagara be. Puntuazino-markak geureak dira; irakurketea errezago egitearren ebatzi dogu erabiltea.

[7] Bokalak lotzeko kantautako "i" parentesi artean emoten dogu.

[8] Kaminoaren.

[9] Eskarmentugarri.

[10] Goikotxearen bersinoan "esan baragarri".

[11] Zubieta baserri izena da. Mapan kokatu dogu.

[12] Goikoetxearen bersinoan "Zamudion jaiota Zubietan hasi".

[13] Solondo baserri izena da. Mapan kokatu dogu.

[14] Hau ez dago jasota Goikotxearenean. Aurrerago ipini dauan legez "(…)" zeinua ageri dalarik, liburuan aitatuten diran berrogeira arteko koplen artean ez dakigu hau egongo ete dan.

[15] *Honeetan* da, pluralean, ahoz bereizten ez bada be. Aurrerago be ageri da.

[16] behar

[17] Goikoetxearenean "Guztiok batu eta trateu eintte dago".

[18] "Sagatzeko troka" ahoskatzen dau informanteak. Mapan kokatu dogu. Bertatik izan ziran hasieran bidea egiteko, baina akabuan ez zan halan izan.

[19] Handixe ekarko (ekarriko) dala.

[20] Goikoetxearenean "haraxe ekarriko deuela".

[21] Egiten.

[22] Egin eben.

[23] Goikoetxearenean kopla hau gure 10.aren osteau dator.

[24] Hemendik aurreragokoetan ezin dogu Goikoetxearen bertsinoagaz alderaketarik egin. Izan be, "(…)" zeinuaz adierazten dau bertso batzuk argitaratu barik itxi dituala.

[25] Daukaguz.

[26] Gaztelerako "recto".

[27] Dabe.

[28] Lastategian.

[29] Albotik.

[30] Artebakarretik. Artebakarra Derioko auzoa da, Mungiara bidea hartzen dauana.

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO

Nikolas Ormaetxea "Orixe" Idazle mistikoa ala mistika idazle?

Ez dago dudarik Nikolas Ormaetxea "Orixe" *mistika idazle* izan zela, *Barne-Muinetan, Quito-n arrebarekin, Jainkoaren billa, El trato con Dios* idatzi zituen liburuak lekuko[1]. Baliteke, euskal letretan, Orixe lehenengo mistika idazlea izatea eta euskal hizkuntza mistikoaren sortzailea ere bai[2]. Orixek berak adierazten digu nola, mistikaz aritzerakoan, hitzak asmatu behar izaten zituen, ondo baino hobeto asmatu ere (Luis Villasanteren eta Paulo Iztuetaren xehetasunak xehetasun[3]), euskaraz idaztean, Orixe maisu izaten baitzen[4].

Orixe *idazle mistikoa* izan zenetz, haatik, dudamuda gehiago dago. Mistikan jakituna izan zen Villasantek dudatan jartzen du Orixe mistikoa izana (Villasanteren eta Orixeren artean, *feeling* onik ez omen zegoen) eta Orixerekin hartueman gazigozoak izan zituen Jokin Zaitegiri joaten zitzaion frogen bila: "Behin baino gehiagotan entzuna nuen Orixe benetan gizon mistikoa izan zela, ez teorian bakarrik, baina praktikan. Hots, bere otoizbidean. Baina nik gogoan nuen Jokin Zaitegi-ri entzun niona. Zaitegik Oñatiko 'San Martin' Egoitzan egin

zituen bere azkenaldiko urte batzuk, eta noizbehinka joaten nintzen hura ikustera, batez ere ostegun sainduz. Behin oroit naiz espresuki geldetu niola: 'Orixe mistiko handia zela diote. Zuk asko ezagutu zenuen, eta zer diozu?'. Hauxe erantzun zidan: 'Nik ez dut mitoak sortzen lagundu nahi...'. Eta zinez Orixeri buruz ia beti gaizki hitz egiten zuen. Urte asko elkarrekin bizi izanak ziren, han Guatemalan, eta dirudienez, tirabirak eta ezin konponduak izan zituzten elkarren artean"[5].

Badirudi Villasanteri (eta Zaitegiri) Orixe mistikoa izateak sorrarazten zizkion errezeloak Orexarraren aiurri edo izaera latzean dautzala, lehenlehenik (horretan bakarrik ote?): nola mistikoa izan eta, aldi berean, "zakarra eta bihurria", harrotxoa omen, aho eta luma zorrotz berokoa?[6] Ez nuke ukatuko Villasanteren errezeloa pisu handikoa dela, ez baitirudi, kristau tradizioaren barruan behinik behin, mistika gertakariak (Jainkoarengandikoak izanez gero) etika tentsioaren ahultasunean sor daitezkeenik (dakizkigukeenik). Hala ere, eta norberaren aiurriaren gorabeherak gorabehera, gu geu ez gara inor, arlo horretan, hots, aiurri zein izaeraren beroaldiak baretzerakoan, Orixek eraman behar izan zituen neke eta ahaleginak epaitzeko. Bestalde, mistika agerpenak Jainkoaren dohaina dira eta, jakin badakigu (sinetsi egiten dugu, hobe), Jainkoak, zuzena eta ona izanik, bere dohainak banatzen dituela ez geure merituen arabera, bere maitasunaren neurriaren arabera baizik[7]. Eta, azkenean, mistikotzat jotzen ditugun zenbait gertakari noiz Jainkoarengandik eta noiz inguruko zein norberaren barruko zirkunstantzia berezietatik ('mistiko' deitzea zilegi ote da, kasu horietan?) datozen bereiztea ez dela erraza. "Mixtikua ez da, oituzko ez dun moduan Jainkoak bikandu dun krixtau bat besterik"[8]. Nikolas Ormaetxea, kasu? Baliteke: "Hemen bi datu edo gertakariren aurrean gaude. Elkarrekin nola lot daitezkeen ikusten ez ditugun bi daturen aurrean; baina agian ez dira bateraezinak. 1) Orixek otoizbidea zinez eta sakonki landu zuela. 2) Bere jite edo aiurria hala-holakoa zuela, zakarra, agian beretzat ere menderatu ezina zena. Honela aiurria duena otoizbidean oso aurrera joatea posible ote da? Agian bai".[9]

1. Mistika idazlea

Apaiz eta fraide askok, euskaldunak izanik ere, mistikaz aritzerakoan erdarara jotzen zuten bitartean, Orixek, laikoa izanik, mistika lan interesgarri batzuk idatzi zituen euskaraz, direla berak sorturiko testuak, direla beste batzuek asmaturiko testuen itzulpenak, bai hitz lauz, bai hitz neurtuz ere, euskara ederrean kasu guztietan; mistika arloan lehena euskal letretan, eta lehena izate horrek neke bereziren batzuk ekarri zizkion, "ez gaiari bakarrik dagokionez, bai ta izanak asmatzeari dagokionez ere. Ortarako ari det nere lana, batez ere, beste asmo onak bazterreratu gabe"[10].

Ildo horretan, Orixek mistika arloko euskal hitz berri batzuk asmatu behar izan zituen: Kartusianoren 'composición de lugar' adierazteko, Orixek 'tokia gertatzea', 'tokia moldatzea' 'gertaera berritzea' edo 'gertaraztea' asmatu zuen[11] (baita adibide praktiko batzuk azaldu ere *Jainkoaren Billaren* "Ebanjeliotik sinfonia" eta "Jesukristo'ren ixiltasunari" ataletan); Loiolako Inazioren *Gogojardunak* liburuaren ohiko 'repeticiones', 'resumen' eta 'aplicación de los sentidos' esateko, Orixek 'berrizkoa, gain-begiratua' edota 'zentzuak ekartzea' erabili zituen[12]; 'actos de la memoria, del entendimiento o afectos de la voluntad' azaltzeko, Orixe 'oroimenaren, nahimenaren edota adimenaren ekina' proposatu zuen; San Joan Gurutzekoaren 'toque sustancial'-en ordez[13], Orixek 'ukiturik barrukoena' itzuli zuen, 'extasis' hitzaren ordez, 'Gaiñezkaldiak' eta 'goi isurizko kontenplazioa'-ren ordez, 'otoiz bika-

ña'; 'kontenplaziozko otoitzean dagoen garaia'ri Orixek '(h)arrialdia' deitu omen zion[14] eta Avilako Santa Teresaren gaztelerazko 'abobamiento'ren ordaintzat, Orixek 'xoxoaldiak' aukeratu zuen eta 'Jainko-ikusle', 'Jainko-entzule', 'Jainko-ikustzaile', 'Jainko-asmatzaile', 'Jainko-gustatzaile' asmatu zituen 'kontenplaziozko otoitz-motaren jabe den pertsona nonbait' adierazteko; perfekziora iritsi direnei Orixek 'bikanduak' deitu zien eta 'la luz de la fe' esateko, 'sinest-argi' pentsatu zuen. Beste hitz batzuk, Orixek erlijiosoa ez zen testuingurutik ekarri eta mistika arlora moldatu zituen: A. Chaok, 'eclipse' esateko 'itzalialdia' bildu zuen hitza Orixek mistikoen 'espiritu gaua' adierazteko erabili zuen, Duvoisinen 'xamurraldia' hitza, mistika 'maitaro egote'tzat hartu zuen eta otoitzeko 'distrazioak' esateko, Orixek 'sorraldiak' ekarri zuen. Beste batzuetan, hitz abstraktuak ekiditeko ahaleginean, Orixe itzulinguruez baliatu zen: Nor dana, zer dana, ba dana, ala-naia, etab.[15]

Ekite zail horretan, Orixe, gauzak ahalik eta hitz gutxienekin adierazten saiatu zen, maileguak edota neologismoak baztertuz. Hori dela eta, Villasanteren ustez, behin baino gehiagotan, erraz ulertzen ditugun ohiko hitz teknikoak erabili beharrean ('kontenplazioa', esaterako), Orixek "halako iluntasun bat eta hitzkuntzari batzutan halako bortxa" egiten du. Hala eta guztiz ere, onartu behar dugu, Orixek ondo baino hobeto bete zuela mistika arloko gertakariak adierazteko euskarak zuen zuloa, euskal mistika hiztegia, behin betiko, markatuz, bide nabar.

2. Idazle mistikoa

Orixeri mistika gertakariren bat gertatzea ez litzaiguke arraro iruditu beharko. Orixe otoitz trinko eta luzeko otoizlari izan omen zen: orduak eta orduak ematen zituen otoitzaldi isil intentsuan hiruzpalau ordu egunean, begiak hertsirik, zirkinik egin gabe. Mezatara joateko ibilaldi luzeak egiten zituen, makal edota herren ibili behar arren[16]. Horren otoizlari sutsuari mistika gertakarien inguruko zer edo zer gertatzea ez zaigu arraro iruditu behar: "Zenbat gaiñezkaldi egunen buruan, / lekuko Zu ta ni besterik etzela! /... Ze bost urte aiek!: itonai, egaldi, / itz-eten... hainbeste pozaldi aukera!".[17]

Egia da, Orixek azaltzen dizkigun mistika gertakaririk gehienak besteen, hots: Avilako Teresa, Joan Gurutzekoa, Loiolako Inazioren… esperientzian oinarritzen direla. Baina hori, batzuetan bederen, bere buruari gertaturiko zenbait gertakari (mistiko?) estaltzeko narrazio baliabide bat izan daiteke eta, behin baino gehiagotan, horrelaxe dela dirudi[18]. Metonimia hori nabarmena zaigu *Quito-n arrebarekin* liburuan, batik bat, non Eliasi egokitzen zaizkion mistika gertakariren batzuek Orixeri berari gertaturikoak omen diruditen.

Horretaz luze eta sakon aritzeko intentziorik (ezta espaziorik ere) gabe, ikus ditzagun Orixeri gertaturiko zenbait gertakari, mistikarekin erlazionatu daitezkeenak:

Negar egiteko dohaina

Orixek, otoitz egiterakoan, negar egiteko erraztasun handia izan omen zuen, baita une pozgarrietan ere. J. M. Aranaldek gogoratzen digu nola, berarekin bizi izan zen azken hiru urteetan, Jainkoarekiko gaiak edo ospakizunak zirela eta, ikusten zuen negarrez ia egunero: "Aste Santu ingurura ezkero, etzegoen arekin egun oietan eman oi duten musika aundia entzuterik ere. Bazkaltzen ari ba'zan, ez ba'zan, negarra lertzen zitzaion, luzaro eusten egon ondoren".[19]

Mistikoen artean ohikoa izaten den negar egitea[20], "yainkozkoa" izan zitekeela ikasia omen

zuen Orixek, umetxoa zela, Amona Mari-Axuntxirengandik: "Arengandik ikasia naun otoitz egiten. Gaixoak etzekien irakurtzen. Ni eramaten nindunan balkoiera, Gurutze-Bidea irakurri nezaion. Zenbat malko ixil! Nere Yainko-bidean ez diñat uste ark aiña iñork eragin naunik. Ua izan nenunan lenengo irakasle"[21], eta, urteak aurrera joan ahala, Eliasen ahoan (esperientzian) jarri zuen berarena dirudien esperientzia: "Elias – neri au gerta oi zitzaidan askotan otoitz-ordu luzeetan: banengon eta banengon, obeki esan, ari nintzan, ari nintzan, ezarian, edo Iainkoak ari ninduan; baiña gorputza ia legorraldiaren mugan nedukan... Ontan, arteraiño batere konturatu gabe, bi malko lertzen zekizkidan sudur-barrenaren eta masailaren azpilduran, bertantxe ere liran gisan. Ain ixil bide egiten zuten araiño, betazalak ere batere oartu etzirala. Ortan ezagutzen nun pozaldian neukala gorputza ere, berak asko sumatu gabe"[22].

Oihuak

Noizean behin Orixeri otoiz-ixiltasuna ez apurtzearren, barrutik irteten zitzaizkion zizpuruak edo oihuak isilarazteko ahalegin gogorrak egin behar izaten omen zituen, Lourdesen, esaterako: "Gurutzebidean lenengo pausoan, / arima soinetik atera naiean / ari zait. Egon naiz aldi bat laguna / nigandik urruntxo lekutu artean. / Bildur nintzan oiuz asiko. Arnaska / zapiko zuriaz agoa betean / beken nengon, lenen, biren, irugarren, / utsik gabe pauso denen bitartean". [23]

Eliasek, "beregan sumatu gabe ere otoitzik bikaiñera igo izateko"[24] posibilitateaz diharduela, hauxe diosku (Orixek *scripsit*): "Askotan esnatu oi nintzan bat-batean, lo-ondorik gabe, buruko ernetasun osoarekin, eta, galtzarra dardar nula, 'Iesus!' oiu egiten nun. Eta logale aundia baneukan, lo gelditzen nintzan berriz ere luzaro gabe. Nik ukan nitun biotz-eragiñik legunenetan 'Iesus' atera zitzaidan oiurik maizena, naiz ernai naiz xor nindagola". Bada, *OIG*, 585. orrialdean, Orixeren ahoan (Orixeri gertatutakoa), honako bertso hauek agertzen zaizkigu: "Santa Lutzi gauez lo bete nengola, / betan atzarri naiz kolkoan ikara / goxoz, buruz erne, IESUS! jalki zaida. / Laister naiz biurtu lengo lo berera, / unatu bainintzan egunez mendian. / Ni lo nengoen, baiña biotza zurera. /[25].

Soinua

Orixek, musika lagun, mistika edo trantzean sartzeko joera *nabaria* izaten omen zuen: "Neri, beintzat, Iainkoak ala egin naulako. Edota grazi bereziz dalako, entzun oroiketa ori aski zaida. Etzaida atertzen ere Iainko-oroitze ori otoitzean ari naizanean, soiñu edo ixiltasun ori entzunez. Esan nizuna, soiñu ori ez da otoitz bikaña bera, baiña musikaren lagungarri bezala, Iainkoa oroitarazten baldin badu, eta atergabe, ez al da ori otoitz bikaiña lurrean, oroitze ori maitetsua baldin bada"[26]. Argigarria zaigu, ildo honetan, "J. S. Bachi Elizan" delako Orixeren olerkia: "An nagozu bakar / Eliza-zokoan / begiak ertsirik. / Ernai? Lo-xorroan? / Ez dakit ni oien / muga non dagoen /... Geroen batean / organuak soinuz / FUGA asten du, / bai baitakit buruz./ Ez dut aski oroiz, / bear dut adituz; / belarrik narama / bernari lagunduz, / Jauna zentzu guziz / ta gogoz maitatuz".[27]

Izadiko teofaniak

Orixe, inguru bukoliko garbian sortu eta bizi izan zen: "Zein soinu gardena errekatxoena! Alderdi gutxi Uitzi eta Orexa baino otoitz egiteko apropos prestaturiko zen-lorategi antzeagorik![28]. Horrelakoetan, ez gutxitan, otoitz edo hegan edo egiteko gogoa sortzen zaigu eta gauza bera sortzen zitzaion Orixeri ere bai: "Uitziko Entzelaira mutiko lenbizi-

koz arekin (Amona Mari-Axuntxirekin) larranbillu biltzera atera nintzanean, an ikusi nitunan, Uitziko kabi txiki artatik aterarik, alderdi batean Aralarko malloa, ta bestean Berueteko, Ezkurrako, Leitzako, Goizueta aldeko mendiak. Orduan esan nionan: 'Zein aundi ote da mundua', ta 'aundiago Yaungoikoa' esan zidanan. Zer egaldia egiñerazi zidan amandre arek lenbizikoa!"[29].

Harrezkero, izadiaren zabalgunetan, Orixek Jainkoaren neurrigabetasunean murgiltzeko erraztasuna usu nabaritzen omen zuen: Bolibiar zabaldian, esaterako: "Zer ageri da? Iñon bañon ikusbitarte zabalagoa. Itxas-oboa bera txiki iduritu zitzadanan, eta etzidanan eragin aunditasun onek aiña... Ikusgarriena ango sorgiñ-argia... Argentinako zabaldietan *tero* txori banaka batzuk ageri ditxin, zugatzik ageri ez bada ere... emen ezer ez. Obeki esan, Yainkoaren ixiltasuna ta pakea... Tebaida ez diñat ezagutzen, baña guraso aiek, denik ere, ain doatsu. Zerua goien, lurra beian; baño mendietatik Yainkoaren laguntza, Dabidek diona. *An etzegon begiak itxi bearrik Yainkoagan murgiltzeko. Amona Mari-Axuntxiz oroitu nuntxinan*"[30].

Bihotzaren punpak

QA liburuko 173-174. orrialdeetan, Eliasek "Iankoaren ontasuna gogoz iraultzean, batez ere Etortzekoagan itxaropena, naiz liburu Santuak irakurtzean, alako bat-bateko biotz-eragin batzuk sortzen zitzaiola aitortzen digu... alako ito-nai bezalako batzuk minutu laurden batez, edo arnasa aldatzen zitzaidan ia eten arte. Zer ito-nai goxoak! Eriotza poz pozik artu liteke aietako batean"[31].

Liburu horretako beste paraje askotan bezala, Eliasen esperientziak Orixerenak berak direla iruditzen zaigu... are eta nabariago ere, kontuan hartuz gero, bihotzeko punpa horiek noiz gertatzen zaizkion galderari, Eliasek Orixek gustukoen zituen mistika liburuak irakurtzerakoan, erantzuten diola: "Daviden Salmoak, Ebanjelioak, batez ere San Joan'ena"[32].

3. Maisu ona mistika arloan

Orixe, filosofia eta, batez ere, teologia arloan, kontserbadore samarra izan omen zen. Gogoratu besterik ez dugu behar, Charles Darwin-en eboluzioari buruzko proposamenak zirela eta, Baionako seminario irakasle (xoxo[33]) birekin, Donibane Lohizunen izan zituen ikamikak[34].

Mistika arloan, haatik, Orixeren iruzkinak aurrerakoiak dira, eskola onekoak, liluratu eta kietisten kontrakoak eta espekulatiboenetatik urrutikoak: 'Adimena'ren vs.'bihotza'ren mistikaren arteko dialektikan, Orixek erdiko bidea edo bide eklektikoa hobetsi izan zuen. Orixe otoizlari edota mistikoa *exijentea* izan zen: "erori ta altxa, bañan otoitza erabat utzi gabe", *intransijentea*, haatik, ez: otoitzaldiko distrazioak (xorraldiak) direla eta, otoizlariari *bakea* eskaintzen dio: "Ahalegiñan egiñ ezkero, ez dago Jainkoaren pake santua galdu bearrik"[35]. Orixeren mistika, nahiz eta Hirutasuna, Aita edota Espiritu Santua ahaztu ez, lehenik eta nagusiki, *kristozentrikoa* izan zen, Avilako Teresa, Joan Gurutzeko edota Loiolako Inaziorena bezalakoa[36] eta, oro har, erasmista, protestante edota mistiko iparreuropar askorena ez bezalakoa. Mistikaren *ikusteari edo kontenplazio* hutsari uko egin barik, Orixek *entzuteari edota Jainkoaren hitzari* ematen dio lehentasuna[37]: *fides es auditu* (San Paulo'k). Mistikako entzute bidea fidagarriagoa iruditu zitzaion ikuste bidea baino, ikuskarien ('visiones') aurretik, hitzak kontraste objektiboa duelako: *Ebanjelioa*, alegia: "Zertako degu, beraz, otoitzean belarria? - Zure Ebanjelio entzuteko, Zu entzuteko, Jauna"[38].

Mistikoak (ofizialak edo, bederen), gehienetan, fraide, moja, erlijioso edota abadeak izan ohi dira, gure tartean, behinik behin. Hori dela eta, kristau sinesmenean oinarrizkoa zaigun gizarte konpromisoa, agertzekotan, inplizitu agertzen da kristau mistika tratatu klasikoetan: Jesusen gizatasuna (hots: mistikaren kristozentrismoa) aldarrikatzerakoan, Jesusen gaixo, zapaldu, preso eta pobreekiko ardura errebindikatzen baita, lehenik eta behin. Dena den, kristau laikoak mistika arlora hurbiltzen ari diren heinean, gizarte konpromisoa gero eta nabarmenago dugu kristau mistikaren ezinbesteko osagai. Orixe laikoa (?) izan zen (aurrerakoi samarra, beraz, mistika bidean), baina, fraide, moja, eta abadeen mistika ildoan mugitu zen, soil-soilik, eta ez handik bat ere aldendu. Alde horretatik, beraz, Orixe atzerakoia, izan zen, bera bizi izan zen urteetan, besteren batzuk (J. Cardijn, M. Bonhoeffer, S. Weil, Etty Hillesum, Leon Bloy...) kristau mistika bide berrietara, hots, gizarte konpromisora, ireki eta zabaltzen hasiak baitziren.

Mistiko izan ala ez, Orixek mistika arloan burututako lanak (originalak ez izanik ere) eskergarriak zaizkigu, bizitzaren ekintza askotan bezala, mistikarako 'igoeran' "gutxi (eta, ahalegin horretan, Orixeren ekarpenak gutxi baino askoz gehiago izan ziren) hobe baita ezer ez baino".

OHARRAK

[1] Baita, besteak beste, 1932.VII.31an, *Euzkadi*n argitaratu zuen artikulu esaguratsua: "Lugares paralelos entre los Ejercicios de San Ignacio y la oración y meditación de San Pedro de Alcántara".

[2] Orixek Aita Agustin Kardaberaz S. J. mistikotzat jotzen du; ikus *Jainkoaren billa* (hemendik aurrera, *JB*, Gero, Bilbo, 1971, 95. or.: "Gure Aita Kardaberaz'en bizitzan au esaten da: Bi urte egon zala ikutu (mistiko) oietaz konturatu gabe, edo zer diran jakin gabe". Baina, orain arte bederen, inork ez du Aita Kardaberazen euskarazko idazkietan mistika lorratzik aipatu. Begi-motzak ote?

[3] Ikus IZTUETA, P. *'Quito'n arrebarekin' irakurriz*, Eusko Jaurlaritza-Etor, Donostia, 1988, 65-69. or. VILLASANTE, L. *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, 1979, 421. or.; "'Quito'n arrebarekin' edo Orixe fede eta otoiz-gizona", in *Orixe mendeurrena (1888-1988)*, Eusko Jaurlaritza-Etor argitaletxea, Donostia, 1991, 471-2. or.

[4] MITXELENA, K. "'Orixe'-ren heriotzean", *EGAN*, 1961 (4-6), 157-163. or.: "Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu". "Esan daiteke, bere obra dugula behar bada asmoz eta neurriz, erabat harturik eta inorena gutxietsi gabe, euskal idazle batek, noiznahikoa den, sortu duen larriena".

[5] VILLASANTE. L. "'Quito'n arrebarekin' edo Orixe fede eta otoiz-gizona", op. cit., 461. or.

[6] *Ibidem*, 461, 463. or.

[7] Mat 20, 1-16: "Ala ni ona naizelako. Ezinikusia didazu?".

[8] ARANALDE, J. M. "Itzaurre-gisan", in *JB*. op. cit., 8. or.

[9] VILLASANTE, L. "'Quito'n arrebarekin' edo...", op. cit., 461. or. *Historia de la Literatura vasca*, op. cit., 418 eta 421. or.: "De carácter un tanto intemperante... fue una personalidad fuera de serie, de grandes contrastes, un tanto huraño y solitario, que no quería ser del montón ni pertenecer a escuela alguna, sino caminar por su camino".

[10] ORMAETXEA, N. *JB*, op. cit., 49. or.

[11] Saxoniako Lodolpho kartusiarraren *Vita Christi San Inaziora:* "Loci notificatio aliquando prodest".

[12] Ikus IZTUETA, P. "El trato con Dios", in *Orixe mendeurrena (1888-1988)*, op. cit., 495-514. or.

[13] "Llama de amor": ¡O regalada llama! ¡Oh mano blanca! ¡Oh toque delicado! Felipe de la Santísima Trinidad admite un modo de unión *contacto sustancial* con Dios: "Per quemdam contactum substantialem".

[14] ORMAECHEA, N. "Ciencia y práctica de nuestro idioma", *Gernika* 18 zkia., 1965, urtarrila-martxoa: Termino con Altube y paso a un escritor novel en lengua vasca: el P. franciscano Villasante Cortabitarte. Habla de la Madre Sorazu. Leí la gran obra de la monja a raíz de haberse publicado y me admiró su solidez de doctrina y su virtud extraordinaria. Me convenció más que la Venarable Agreda, la cual también llevaba sangre nuestra con un apellido Arana. Pero no me venga a decir el P. Nazario Pérez que era completamente iliterata, que no había leído autores, cuando se ve que ha leído a S. Juan de la Cruz, y quizás interpretándole mal en algún punto. El príncipe de los místicos le pondría algún reparo teológico a lo de "toque sustancial" de ciertos atributos. Si bien es verdad que los atributos divinos se identifican con la divina sustancia, el oír hablar a S. Juan de la Cruz de "toque sustancial" entre la sustancia de Dios y la sustancia del alma no choca como puede chocar a los exigentes el toque sustancial con los atributos. El P. Villasante dice que no hay influencia de anteriores autores místicos en ella. Si llego a tiempo, posiblemente haré un estudio amplio demostrando que sí.

[15] 'Argialdiak' hitza ere erabili zuen Orixek, baina hitz hori, testuinguru berean, Añibarrok erabilia omen zuen. Ikus *Orotariko Euskal Hiztegia*

[16] VILLASANTE, L. *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, 1979, 421-422. or. "*Quito-n arrebarekin* edo Orixe fede eta otoiz-gizona", in *Orixe mendeurrena (1888-1988)*, op. cit. 459-472. or. Interesgarria da arlo horretan Iztuetak aipaturiko '*Quito'n arrebarekin' irakurriz* liburuan dakarkigun "Lexikoa", 393-401. or.

[17] ARANALDE, J. M. "Itsaurre-gisan", o. cit. 9. or.: "Askoz atsegiñago zitzaion ta osasunerako, obe zitzaion" Ameriketatik Euskal Herrira bueltatu bazen ez zen, lehen-lehenik behinik behin, herri minarengatik itzuli... eguneroko meza eta Jauna hartzearen minarengaitik baizik. *OrOm*, 38. or. Ameriketan egon zenean, mezatara joateko, egunero goizeko laurak baino lehenago altxatu behar izan zuen: "Lau kilometro zeuden aldapa gora. Onantzakoan oiñez etorriko nintzala, bada, eguzkia iekitzen ikusiz; aldapa bera ikatz zakua ere joan baititeke, gurean esan oi dena". *QA*, 148. or.

[18] *Ibidem*., 10. or. Bost urte haiek, 1931-36 bitartekoak omen dira. Orixek urte 'zuri' (*sic* Orixek berak) horiek Orexako sor-etxean eman zituen, *Euskaldunak* idazten.

[19] VILLASANTE, L. "*Quito-n arrebarekin* edo Orixe fede eta otoiz-gizona", op. cit, 461. or.: "Aranaldek *Jainkoaren billa* liburuaren hitzaurrean esaten dituenak egiak baldin badira –eta nik ez ditut dudatan jartzen– Orixe mistikoa zelako uste horrek oinarri sendorik baduela ezin uka".

[20] ARANALDE, J. M. "Itzaurre gisan", op. cit. 10. or. ZUNDEL, M. *Otro modo de ver al hombre*, Desclée De Brouwer, Bilbo, 2002, 85. or.: "San Francisco de Asís no acabará de llorar nunca por la Pasión de Jesucristo hasta volverse ciego".

[21] Ikus AVILAKO TERESAren *El castillo Interior*, V: 2, 10, 11, 14. SCHMUKI, C.ren "La oración contemplativa en los escritos y en la 'Biografía oficial' de Santa Clara de Asís", baita san Inazioren biografiak: "Una de las gracias especiales que San Ignacio recibió desde los comienzos de su vida interior, y que incluyó en los Ejercicios y en su diario espiritual, era el llamado «don de lágrimas», al que dio una importancia decisiva. En la contemplación de la Pasión, el don de lágrimas es un efecto de la consolación divina, de compunción por los pecados y de unión mística con las que Dios confirma su voluntad".

[22] ORMAETXEA, N. *QA*, op. cit., 44. or. Ik. *OIG*, 577. or.. "Bost aldiz ikusia naiz / egon aretan amañi, / ez-jakin jakintsu aren / ikasle zur nintzala ni! / Ua bezala nai nue / ikasian ez-ikasi. / Ua lako gurasorik otoitzean ez dut kausi".

[23] ORMAETXEA, N. *QA,*, op. cit., 176. or.

[24] Orixe "bots aldiz edo izan da Ama Birjiñaren Santutegi andi hartara. Lenengo aldia lagunartean joan da; andik aurrera, bakarrik lagunik gabe. Ez du nai leenekoan gertatu zitzaionik gerta dakion... Norbaitek igarri dio gutxitan dela Santutegi artan, eta berak... 'Bakeki. Naiago dut fedez billatu... Ez nintzat itsatsi / pozleku artara. Naiago fedea". Ikus in AKESOLO, L. "Orixeren mistika", in *Orixeren mendeurrena (1888-1988),* op. cit. 192-193. or.

[25] Ikus *QA*, op. cit., 173-4. or. Santa Teresa Avilakoa: "a deshora, estando descuidados" (aipu hori Orixek dakar). "Loiolak diona, ez-orduan, xor gaudela. Nondik nora ez dakigula, gertatzen dira argialdi ontan biotz-eragin xamur oietakoak".

[26] Ikus ere, *QA*, 184. or.

[27] ORMAETXEA, N. *QA*, op. cit., 136. or. ARANALDE, L. *Deia*, 85.01.02: "Nire sendian ezagutu dudan melomanoena Nikolas Ormaetxea 'Orixe' izango da, noski. Oraindik gogoan

ditut berarekin igarotako orduak, Mozart, Bach eta Haendel entzuten. Besteak oheratutakoan biok geratzen ginen sukaldean. Besoak gurutzatu, begiak itxi eta estasi antzean iraun ohi zuen, adi-adi, liluraturik, pieza bukatu arte. Haren kultura haundia zen. Sonata eta sinfonia osoak txistuz jotzeko gai zen. Barrokoa zitzaion atseginena. Haendel zuen bere kuttuna. Chopin eta Liszt ez zituen gogoko, ez haien musika maite ez zuelako, bizitza zabar samarrekotzat zituelako baizik. Chopinen bizitzarik ez irakurtzeko agintzen zidan. Sena handia zuen Orixek musikarako, nahiz eta musika tresna jotzen jakin ez".

[28] AKESOLO, L. "Orixeren mistika", op. cit., 191. or.: Karmeldarren elizan, Meza entzuten zegoela: "Eta olako batez, elizan *Fons Bonitatis* meza kantatzen zutela, mistiko jainkotiarrei noizbait gertatzen zaiena gertatu zaio, barren guzia goragoraka asten zaiola. Ona nola esan duen poematxo batean: Begoñako Karrmel / elizara noa / gregoriar kanta-zun / Meza nagusira… *Kyrie, Gloria* /, emeki emeki / nere lapikoa / betetzen ari da: / *solus altissimus* entzunda / goxoak nerama / neronez gaidira".

[29] *Ibidem*., 192. or.: "Ango mendiak ta ikuspegi ederrak Jainkoagana erraz eraikiten diote biotza". ORMAETXEA, N. *QA*, 43, or.. "Olako bultzara eragiñez, griñak eman zizkidanan ikara gabe aurrera egiteko, txorikume oni. Geroztik egin diñat egaldi aundiagorik, an asita zabaldi ontarako". "Asi Errazkingo Mallotik, obeki esan, Baraibarko ta Uarte-Arakilgo muga basotik, eta Ayako Andazarrate ingururaño bayunate begiek zer ikusi. Aralar, Urkieta, Narbaitzu, Agiñegi, Beizamako basoak, Albistur, Urkizu –azpialdean egiten zetunan bertsoak Lizardi zanak–, Ernio, Zelatun, Andazarrate. Napar aldera Zotzune, Musairu, Unai-garate. Zer arrano-arkaitza gure etxea!" 'Egalontzia' esaten zioten, "iduri baitu egan astera doala".

[30] ORMAETXEA, N. *Euskaldunak*. 251 or.: "Lênengoz atera nun kabitik mokoa / artean soil nekian erriko zokoak; / larranbillutan giñan: 'Zenbat da mundua?' / esan nion; eta arek: 'Aundi... Jainkoa'... / bein ere etzait âztuko ango zirrakoa".

[31] ORMAETXEA, N. *QA*, op. cit., 50-51. or. Hizki etzanak nireak dira.

[32] *QA*, 174-175. or., *JB,* 211. or.

[33] "Jesukristo siñesteari dagokionez... iru (bi) leku artuko ditut San Joan'en Ebanjeliotik"...;

[34] Horrelaxe Orixek in *QA*, 107. or.

[35] *QA,* 102-109. or.: "Nola ote dago gure Eliza gaxoa? Ez ote da argirik etorriko laister Erromatik".

[36] *JB* 79; 187-188. or.

[37] *Diccionario de Espiritualidad ignaciana*, II, 1357. or.

[38] "Nere ustez, belarri edo belarri bezelako zentzu gorde orri etzaio aski leku eman liburu mistikuetan". *JB*, 115. or.: "Beraz, nik, Elizako Gurasoak asmatu zuten *Dei contemplator* edo *contemplativus* orrentzat begirapen osoa dedalerik, *Dei auditor* edo Jainko-entzule bezela artuko det liburu ontan".

[39] *JB*, 113. or.; 44. or.: "Nork esan berrogeitamar urte auetan autore kristauak egin duten aurrerapena? Nere aurtzaroan nun ikusten ziran gutartean lau Ebanjelioak batean? Erderaz ere. Oraiñ euskaraz ere bai".

IÑAKI SARRIUGARTE IRIGOIEN

Herta Müller: Errumaniako ahots alemaniarra

Ezusteko barri bat Literatura Nobel Sarian

Suediako Akademiak 2009ko Literatura Nobel Sariaren irabazlea nor genduan iragarri ebanean, harridurea izan zan gehien nabarmendu zan erreakzinoa. Kiniela gehienetan betiko izenak agertzen baziran be —gizonezkoak gehienak: Amos Oz, Ismail Kadare, Philip Roth, Mario Vargas Llosa...—, irabazlearen izena zabaldukeran, banakaren batzuk baino ez eben identifikatu. Irabazlea Herta Müller zala adierazo eta gero, hedabideetan honako hiru ezaugarriok errepikatu izan dira behin eta barriro: emakumea, errumaniarra jaiotzez, eta alemaniarra jatorriz eta hizkuntzaz.

Emakumea dan aldetik, esan beharra dago Literatura Nobel Sarien historian hamaikagarrena dala[1] Herta Müller; zazpigarrena Europan, eta hirugarrena alemaneraz[2] idatzi daben andrazkoen artean. Azpimarragarria da, era berean, azken urteotan emakume idazleak izan daben aurrerakada galanta; izan be, irabazi dituen hamaika sarietatik bost, azken hamazortzi urteotan lortu izan ditue.

Errumaniarra dala kontuan harturik, ezinbestekoa da gogoratzea hogeigarren mendean Errumaniak emon dauan idazle andana joria: Tristan Tzara (Moinesti, Errumania, 1896 - Paris, 1963), Mircea

Eliade (Bukarest, Errumania, 1907 - Chicago, 1986), Eugène Ionesco (Slatina, Errumania, 1909 - Paris, 1994), Emil Mihai Cioran (Rasinari, Errumania 1911 - Paris, 1995)... Katearen azken katebegia Herta Müller genduke. Bost idazle errumaniar handi, ezaugarri komun bat daukienak: euren obra nagusiak errumanierea ez dan beste hizkuntza baten (frantsesa, ingelesa, alemana...) idatzi ditue bostok. Herta Müller-en kasuan, baina, gitxiengo suaboaren barruan jaio zanez, hasiera-hasieratik erabili eban errumanierea ez zan bere ama hizkuntzea (alemana) literatur lanetan.

Hirugarren ezaugarri nagusia Herta Müller-en jatorria da. Izan be, etniaz, hizkuntzaz eta kulturaz alemaniarra dogu aurtengo Nobel Saria, Errumaniako hego-mendebaldeko Banato izeneko eskualdean jaioa eta hazia. Bertan germaniar jatorriko komunitate suaboa bizi izan da azken hiru gizaldi honetan. Suaboak aitatzen diranean, Alemaniako Suabia (Schwaben) probintzia jatorku gogora, Bavierako mendebaldean dagoana. Baina, noiz eta nondik heldu ziran germaniar jatorriko suaboak (*Banat Swabians*) Errumaniara eta albo nazinoetara[3]?

Errumaniako alemaniarrak

Banatoko suaboak, XVIII. mendean, Alemaniatik eskualde historiko horretara joandako kolonoak dira. Austriar inperioak helburu jakin bategaz bialdu zituan bertara: otomanoai konkistatutako lurrak jente europarrez populatzea, aldaketa etniko eta erlijiosoak bultzatzeko. Baldintzetariko bat katolikoak izatea zan, bertara joaniko garaiteko jente barria be katolikoa zan-eta. Jatorri alemaniarreko kolonorik gehienak Alsazia-Lorena, Bavaria, Palatinadokoak-eta ziran. Suabia eskualdetik jente asko joan ez arren, suaboak (*swabians*) deitu izan jake lurralde konkistatu eta okupatu barri horreetara joandakoai. Arrazoia da, gehienak Suabiako Ulm urian enbarkatu zirala, eta bertan izan zirala erregistratuak. Kolono horreen ibilbidea Ulm urian hasten zan, eta Danubioan behera Belgradoraino helduta, bertatik oinez joaten ziran euren destinoetara.

Trianon-eko Itunak (The Treaty of Trianon, 1920) hala aginduta, Hungariak Errumaniari emon behar izan eutsan Banatoa. Kontuan harturik hungariarren menpean gitxiengo alemaniarrak oso aukera gitxi izan ebala bere hizkuntza eta kulturea lantzeko, aldaketa politiko horrek loraldi ederra ekarri eutsan bertako kultura alemaniarrari: eskoletako ateak zabaldu egin jakozan alemanari, uri handietan antzerki-obrak alemanez antzezten hasi ziran, alemanezko kazetak-eta ugaldu egin ziran, "Verband der Deutschen in Rumaenien" (Errumaniako Alemaniarren Batasuna) alkartea sortu zan... 1930. urteko beherakada ekonomikoak Banatoko suabo asko emigrazinora (Brasil, Argentina, AEB...) bultzatu eban, betiko bultzatu be. Bestalde, 1933tik aurrera naziak eragin handia izan eben Europako hego-ekialdeko alemaniarren artean, eta II. Mundu Gerra biztu zanean, naziak germaniar jatorriko gizonezko asko mobilizatu zituen, eta euren armadan sartu.

Gerra amaitukeran, Stalin-en gobernuak suabo ugari be ugari deportatu zituan, eta euretariko asko Sobiet Batasunean hil ziran. 50eko hamarkadan emigrazino mugimenduak hasten dira, Alemania eta Frantzia[4] aldera, batez be; eta 60ko hamarkadan —hain zuzen be Errumaniako alemaniarren kontrako jazarpena amaitzen danean—, hasiko da Alemaniarako etenbako emigrazino isuria. Hamar bat belaunaldiz bizi izan dira bertan Banatoko suaboak; euren kultureak kutsu berezia dauka gainontzeko alemaniarren kulturearen aldean; erro sakonak daukiez Errumanian-eta... Ha ta guzti be, kanporako bideari ekingo deutsie, Banatoa alemaniarrez ia-ia hustu arte.

Ceaucescu boterera heltzen danean (1965), aro barri bat hasi zan Errumanian, baina suaboen odolustea ez zan gelditu. 70eko hamarkadan, Ceaucescuren garairik baltzenean, diruaren truke lortu eben suabo askok pasaportea Alemaniara joan ahal izateko. Ceaucescuren amaiereak (1989), eta Alemania bien arteko batasunak (1990) areagotu baino ez dabe egingo emigrazinorako joera bizi eta geldiezin hori. Behinola, Errumanian bizi ziran alemaniar jatorriko 750.000 biztanleetatik gaur egun 75.000 inguru geratzen dira bertan[5], eta euren jarduera kulturala (aldizkariak, antzerkia, eskola alemanak...) laguntza ofizialen pentsuan dago neurri handi-handi baten.

Diktadureak markaturiko idazlea[6]

Herta Müller 1953ko abuztuaren 17an jaio zan Nitzkydorf (Banat) herritxuan, jatorri alemaniarreko familia suabo baten. Idazlearen gurasoak baserritarrak ziran eta euren jatorri suaboak eragin haundi be haundia izan eban euren bizitzetan: aita Bigarren Mundu Gerran nazien Waffen-SSetan egon zan soldadu; eta, gerra amaitukeran (1945), ama deportatua izan zan, eta bost urtez egon zan Ukrainako lan-esparru baten atxilo[7].

Herta Müller-ek 1973-1976 urteetan filologia germaniarra eta errumaniarra, bitzuak ikasi ebazan Timiosarako unibersidadean, eta idazle errumaniar-alemaniar batzuk osoturiko *Aktionsgruppe Banat* taldeko partaidea izan zan.

Hiru bat urtez (1977-1979), itzultzaile modura egin eban behar tresneria-lantegi baten, baina Errumaniako seguritate zerbitzuakaz (*Securitatea Statului*) behar egiteari uko egin eutsanez, bota egin eben beharlekutik. Hori dala-eta, alemanezko eskolak emoten-eta irabazi behar izan eban eguneroko ogia. Edozelan be, Errumaniako *Securitatea*-k ez eban nasai eta paketan itxi, eta hamaikatxu biderrez erantzun behar izan eutsen polizien itaunketai[8], baita hareen jazarpena jasan be.

Herta Müller-en lehen liburu biak Bukaresten ikusi eben argia. Lehenengoak (*Niederungen, En tierras bajas*) 1982an, baina edizino zentsuratu baten. Handik urte bira, Berlin-en osorik argitaratu zan. 1984an, Bukaresten *Drückeneder Tango* argitaratukeran, gobernuak galarazo egin eutsan Errumanian ezer gehiago argitaratzea. Izan be, bigarren liburuan idazleak kritika zorrotza egiten eutsan Nicolae Ceaucescuren erregimen komunisteari, bertako intolerantzia, ustelkeria, jazarpen sistematikoak-eta, agirian jarriaz. Bien bitartean, Herta Müller-en liburuak ospe eta oihartzun handia lortu eben Austrian eta Alemanian; ez, ostera, Errumaniako hedabide ofizialetan: "Urte luzez baztertu dute Herta Müller Errumanian: Ceaucescu hil eta hamahiru urtera egindako Errumaniako idazleen hiztegian ez zen haren izena ageri"[9].

Handik lasterrera, 1987an, idazleak Alemania aldera jo eban, Richard Wagner senar idazleak lagunduta. Hurrengo urteetan unibersidade askotan (Hamburgo, Gotinga, Tubinga, Zurich...) lektore izan eta gero, Berlinen pausatu zan, eta bertan bizi da gaur egun. Baina urteetako ametsa berandu bilakatu zan errealidade, ordurako markatuta eta zartatuta egoalako idazle errumaniarra: "Handik hanka egin ahal izateko zoria izan nuen, baina beluegi, deseginda nengoan-eta".

Edozelan be, badirudi diktadureak ez ebala erabat indargetu idazle adoretsua, hogei liburutik gora (olerkiak, ipuin bildumak, eleberriak, saiakerak...) idatzi ditu-eta. Etenbako lan literario horri esker, berrogeta hamasei urtegaz, idazle batek lortu leikean saririk handiena beragandu dau idazle errumaniarrak, artean hainbat sari garrantzitsu irabazita egoan baina: Aspekte (1984), Ricarda Huch (1987), Roswitha von Gardersheim (1990), Franz Kafka (1999), Würth (2006)... 1995etik aurrera Herta

Müller Alemaniako Poesia eta Hizkuntza Akademiako partaidea da. Obra pertsonal sendoa idazle errumaniar-alemaniarrarena, Suediako Akademiaren ustez, "desjabetuen paisaia poesiaren trinkotasunaz eta prosaren gardentasunaz deskribatzen dauana".

Herta Müller-en obrak hogetazak hizkuntzatara itzuli dira. Euskeraz, tamalez, ez daukagu —momentuz— aukerarik idazle errumaniarraren liburuak irakurteko. Etorriko ahal dira gesu baten euskerazko itzulpenak! Irakurleok eskertu egingo geunkez. Gaztelaniara, aldiz, lau liburu egozan itzulita sariaren barri emotean: *En tierras bajas*, 1984 (Siruela, 1990-2007); *El hombre es un gran faisán en el mundo*, 1986 (Siruela, 1992-2007); *La piel del zorro*, 1992 (Plaza & Janés, 1996); eta *La bestia del corazón*, 1994 (Mondadori, 1997).

Liburu esanguratsu bi

En tierras bajas liburuak 15 kontakizun batzen ditu bere barruan. Kontakizun laburrak, laugarrena izan ezik. Izan be, liburuari izenburua emoten deutsan laugarren atalak, berak bakarrik liburuko orrialdeen erdiak hartzen ditu. Kontakizunotan, neskatotxu baten begien bitartez, Banatoko komunidade alemaniarraren eguneroko bizimodua dakusgu, bertako argi-ilunakaz, eta osagai gazi-gozogezakaz beti be: familia, heriotza, olgetak, eskola, eleiza, sexua..., agertuko jakuz era xalo, eta, era berean, gordin baten. Giroa itogarria da komunitate itxian, bakardade betiereko batek dan-dana iruntsi baileuan:

> "Horadamos con la mirada esa cálida niebla, que pesa y nos oprime el cráneo. Desviamos la mirada de nuestra soledad, de nosotros mismos, y no soportamos a los otros ni a nosotros mismos, y los otros tampoco nos soportan" (107. or.).

Hamar bat belaunaldik bizi izandako esperientziak, errepresioa, inkomunikazinoa, bildurrak..., inkatuta dagoz geldi dagoan atmosfera baten, denporatik kanpo balegoz lez. Hori dala-eta, zenbait adituk Juan Rulfo mexikarraren *Pedro Páramo* liburuagaz parekatu izan dabe Herta Müller-en *opera prima* hau. Idazleak, bere aldetik, parekagarri ikusten ditu bere jaioterria eta G. García Márquez-en Macondo[10]. Oraintsu kritiko batek esan dauanez, Müller-ek sortzen dituan pertsonaiak elementu atabiko batek bizi ditu:

> "Nacen, crecen y mueren como personajes del territorio de los mitos populares de naciones ya muy viejas, desde el *folclore* de la Europa anterior a las guerras mundiales, o por decirlo de otro modo: desde las historias (y palabras) de familia y de lugares pequeños aún casi medievales"[11].

El hombre es un gran faisán en el mundo liburuan, Müller-en tonua askozaz be direktoagoa da, kritikoagoa Errumaniako egoera politikoarekiko, baita gordin-gordina be zenbait pasartetan. "La Cruz de Plata" atalean, kasurako, Polizia eta Eleiza, bitzuak agertuko jakuz eskutik lotuta, ustelkeria eta bidegabekeriaren erresuma txiki haretan.

Liburuon, idazleak Banatoko alemaniar komunidadearen azken urteetan kokatzen gaitu, baina oraingoan dinamika aktiboago baten. Izan be, hasita dago Alemania aldera itzultzeko prozesua. Windich protagonista nagusiak pasaportea hartzeko gelditzen diran egunak kontetan dihardu, familiagaz Alemania aldera joateko. Dabilen denporea gura dau, etorkizunezkoa, ez geldi dagoan denpora itogarri hori: "*El final está aquí* —pentsetan dau—. Desde que se propuso emigrar ve el final en todos los rincones del pueblo. Y el tiempo detenido para los que quieren quedarse" (14. or.). Etorkizunera

begira bizi da orain komunidade suaboa. Müller-en lehen liburuan, ostera, iragana eta orain itxaropen bakoa ziran erreferentzia nagusiak.

Bestalde, ikutu autobiografikoak beratu egiten dabe Müller-en nobela hau. Izan be, Windish protagonista nazien armadako partaidea izan zan II. Mundu Gerran, emaztea Errusian egon zan bost urtez deportatuta, eta Amalie alabak uriko haurtzandegi baten egiten dau behar. Hiru pertsonaia nagusien nondik-norakoak ikusita, agerikoa da Herta Müller-en mundu pertsonalarekiko paralelismoa.

Obra honetan gizartea ez da *En tierras bajas* liburuan baizen uniformea. Han gizarte suaboa trinkoa zan, mundu alemaniar txiki bat errumaniarrez inguratuta. Orain suaboak itxitako lekuak valakoak-eta okupauko ditue. Orain herriko gizonak tabernan dagozala, errumaniar batek, ezetariko erreparo barik, "No más alemán. Estamos en Rumanía" esango dau. Eta alboan dagoan arotz suaboak honan erantzun: "Pronto estaréis libres de nosotros" (71. or). Batzuk itxitako hutsuneak (etxeak, lanpostuak...) besteak okupetan ditue. Izan be, heltzen hasi dira pasaporteak: "El policía le ha dicho al cura que vuestros pasaportes ya están listos en la oficina de pasaportes" (106. or.).

Edozelan be, Berlin, Munich edota Stuttgard-en dan-dana ez ei da urrezko. Windischtarrak baino lehenago joandako herriko narru-saltzaileak idatzi egin deutse Stuttgard bere kokaleku barritik...: "Empezar nunca es fácil", —dino Windisch errotariak—; "En todas partes hay que trabajar", erantzungo deutso lagunak, gaueko zaindariak. Baina, badago, antza, beharra baino gogorragoa dan zeozer: "Hay una cosa muy dura, nos ha escrito el peletero. Una enfermedad que todos conocemos por la guerra: la nostalgia" (88. or.). Izan be, protagonista nagusiaren lagunak (16. or.), eta Windisch-ek berak dinoenez (91. or.): "El hombre es un gran faisán en el mundo"[12], hau da, gizakiak nekez, ozta-ozta, eta asko kostata iraungo dau beti, Banaton zein Alemania batu barrian. Müller-ek be Alemanian, bere bigarren herrian, bizi izan eban deserrotzeaz idatzi eban *Reisende auf einem Bein* (Berlin, 1989) liburuan.

Beharbada, aurretiaz sentidutako herrimin hori arindu guran-edo, promisino-lurretara doan trenean igonda dagozanean, bueltauko dirala dino Windish-en emazteak: "Bajo su permanente, en el interior de su cráneo, se ha organizado ya un nuevo mundo al que se dirige cargando sus enormes maletas. Sus labios son como cenizas frías. *Si Dios quiere, el verano próximo vendremos de visita*, dice" (116. or.). Bueltetan diranean, autoz, traje eta oinetako dotorez jantzita, betiko bide-zulora[13] heldukeran, Windisch-en emazteak zera esango dau: "Es como si nunca hubiéramos vivido aquí" (117. or.). Baina, herriko eleizara hurreraturik, kanpoko kanpaien soinua eta eleiza barruko organoaren doinua Windisch-en belarri suaboetan gurutzatzen diranean, kristalezko negar anpulo bat geratzen da eskegita haren masailatik.

Alemanez idatzi, errumanieraz sentitu

Errumaniarra? Alemaniarra?: "Sus gestos, su ironía, su acento, delatan a esa persona que confiesa sentirse sobre todo rumana, rumana antes que alemana, aunque su idioma literario y materno sea el alemán". Carlos A. Aguilera kubatarrak alkarrizketa mamitsu bat egin eutsan Herta Müller-i 2008an, Berlingo Literaturhaus-en[14], eta bertatik itaun bateri emondako erantzun luzetxu baizen interesgarria itzuli dogu; gure ustez, Herta Müller-en pentsakerearen inguruko alderdi interesgarri asko eskeintzen ditualako. Itaunean, alkarrizketatzaileak Müller-i eskatzen deutso *La bestia del corazón* liburuan erabilten dituan kontzeptu batzuk (*ama*

hizkuntza, *hizkuntza estatala*, *umezaroko hizkuntza*...) iruzkindu eta argitzeko. Hona, Herta Müllerek erantzundakoa, interesgarria oso:

Nire ama hizkuntzea alemana da, Errumaniako alemaniar gitxiengo baten barruan jaio nintzalako. Halandaze, alemana da nire lehenengo hizkuntzea. Gero umezaroko hizkuntzea dago. Baina, egia esan, horrexegaz daukat arazo nagusia: ez dakit, benetan, nire umezaroko hizkuntzea den. Izan be, nire haurtzaroan berba gitxi be gitxi egiten genduan, haurtzaroko hizkuntza bat egon eiten. Hizkuntza nazionala dago eta hizkuntza estatala. Estatuak darabilan hizkuntzea, berbeta ideologikoa, distortsionatua, apurtua, diktadurapeko eretxi publikoan nongura entzuten dana da. Aitzitik, hizkuntza nazionala hizkuntza pertsonala da, norberak nonogaz berba egiteko erabilten dauana, hau da, eguerdietan bazkalorduan nire ondoan jesarten ziran errumaniarren hizkuntzea. Hori, jakina, ez da hizkuntza estatala. Edozelan be, hamarkadotan hizkuntza estatala sartu egin da hizkuntza nazionalean, pertsona batzuk ez igarteraino noiz darabilen bata, eta noiz bestea. Denporea joanago, eta aurrerago doa konfusino hori. Badakigu diktadura guztietan jazoten dana hori, diktadurak hizkuntzea be monopolizatzen dabena. Baina, ezin da errotik desagertuazo hizkuntza nazional bat; hori be badakigu. Nik posible izan neban errumaniereagaz distantzia argi bat mantentzea: alde batetik, errumanierea ez dalako nire ama hizkuntzea; eta, bestetik, hamabost urtegaz ikasi nebalako. Orduantxe konturatu nintzan zein ederra zan haren doinua, zein sentsuala zan, bere metafora eta figura linguistiko guztiakaz, euretariko asko sineskeriagaz nahasturik dagozanak. Errumaniereak hizkuntza germaniarretan ez dagozan maila asko ditu. Errumanieraz dan-dana ez da berehala arrunt bihurtzen. Hutsala izan daiteke, baina arrunta ez, eta hori ezinezkoa da nire ama hizkuntzan. Zeozer itzuli ezkero errumanieratik alemanera, dana bihurtzen da arrunt, lizun. Testuak ez ohi dira bat etorri, errumanierearen plano linguistiko asko ez diralako existitzen alemanez. Eta horrexegaitik liluratzen nau errumaniereak. Gauza bera pasetan jat haren kontraesanakaz. Gizona faisai handi bat da munduan *izeneko liburu bat idatzi dot. Errumaniar esamolde bat da. Errumanieraz oso normala da honakoa esatea: "Barriro izan naz faisai bat" ("barriro egin dot porrot"; "ezin izan dot lortu"). Hau da, errumanieraz faisaia galtzaile bat da; alemanez, ostera, harro hantuste bat. Dakigunez, faisaiak ezin dau hegan egin, lurrean bizi da. Ehizan hasten garanean, eta esperientzia laburra daukagunean, faisaiak ehizatu ohi ditugu. Piezarik errezena, faisaiak ezin dau-eta hanka egin. Errumaniarrak euren metaforeari ezaugarri horixe txertatu deutsie. Eta zein ezaugarri hartu dabe alemaniarrak? Lumak, lumajea, azaleko ezaugarriak. Hegaztiaren bizitzeak ez deutse ardura alemaniarrai; errumaniarrai hegaztiaren existentzia interesetan jake, eta horrek liluratu egiten nau. Errumaniar faisaia hurrago egon da beti nigandik alemaniar faisaia baino. Gauza bera pasetan jat beste gauza batzukaz. Nire izakereari erreparatuta, sarri pentsetan dot errumaniarra nazala. Oso txarto moldatzen naz errumanieraz, baina estrukturalki, nire barruagaitik, eta benetan konbentzitzen nauanagaitik, poesian eta sentsualitatean be errumaniarra naz. Esaterako, landareen izenakaitik eta pentsauazoten eustien gauza askogaitik: ´Beitu zer ikusten daben eurak eta zer ikusten daben alemaniarrak´. Hortixik dator nire uste sendo bat, hau da, errumanierea nire idazkerearen partaidea dala. Kontua ez da nik errumanierazko berbak erabiltea, baina normala da errumanierea be nire testuetan egotea, nire begiradan hazi da-eta. Alemanaren antzera dago nire buruan. Gauza beraren irudi diferenteak daukadaz, errumaniereak beste era batera*

ikusten ditualako, eta irudi horregaz egiten dot behar. Eta errumaniar irudi hori, beharbada, nigandik hurrago dagoanez, errumaniar irudiagaz behar gehiago egiten dot, nahiz eta alemanez idatzi. Halandaze, bateragarriak dira bitzuak. Hori dala-eta, ezin dot esan zer dan errumaniarra, eta zer dan alemaniarra. Eta hori holan izatea suerte handia da idazlearentzat, pasau ahal jakon gauzarik onena.

* * *

Nobel Saria mugarria izan leiteke Herta Müllerren idazle karreran. Izan be, orain arte haren literaturea Errumaniako gitxiengo suaboaren bizi-esperientzia, pairamena eta deserrotzea deskribatzea —obsesiboki esango geunke— izan da nagusiki. Unibertso literario sendoa sortu dau Müller-ek komunitate txiki baten inguruan. Nobel Sariagaz baina, baliteke iraganarekiko konpromiso pertsonal hori kitatuta gelditzea, eta Herta Müllerren literaturan aro barri bat hastea. Horrela, beharbada, idazlearen begirada zauritua[15] begirada zohardi bilakatuko da, pertsonalki zein literarioki.

OHARRAK

[1] Hona hemen zerrendea: Selma Lagerlof (1909, Suedia), Grazia Deledda (1926, Italia), Sigrid Undset (1928, Norvegia), Pearl S. Buck (1938, Estatu Batuak), Gabriela Mistral (1945, Txile) Nelly Sach (1966, Alemania), Nadime Gordimer (1991, Hego Afrika), Toni Morrison (1993, Estatu Batuak), Wislawa Szymborska (1996, Polonia), Elfriede Jelinek (2004, Austria), Herta Müller (2009, Errumania).

[2] Guztira hamabi dira alemana literatur hizkuntza izan daben Nobel saridunak: bederatzi alemaniarrak, bat suitzarra, beste bat austriarra eta azkena, Herta Müller, errumaniarra.

[3] Europako hego-ekialdeko eskualde historiko hau (*Banat* errumanieraz eta alemanez), gaur egun hiru zatitan dago banatuta: Banato errumaniarra (Timis, Arad eta Caras-Severin distritoak), Banato serbiarra (Voivodina) eta Banato hungariarra (Csongrad konterria).

[4] Kasu honetan, *Francais du Banat* diralakoak, Robert Schuman Frantziako lehen ministroak lagunduta. Izan be, Frantziako Lorraine eskualdetik-eta joandakoak mantendu egin eben frantziar hizkuntzea eta komunitate berezi modura antolatuta bizi izan ziran Banaton.

[5] Herta Müller idazlearen herria (Nitzkydorf) be esandakoaren argigarria dateke: 1941. urtean 3.157 biztanle eukazan, 2.078 alemaniar jatorrikoak eta 1.035 errumaniarrak; 1992an, ostera, 1.555 biztanle baino ez, euretatik 59 alemaniar jatorrikoak eta 1.411 errumaniarrak.

[6] Nobel Sariaren barri izan eta gero, zera adierazo eutsen kazetariai Berlin-en: "Diktadurea da nire liburu guztien gaia".

[7] Herta Müller-en azken nobela (*Atemschaukel*, 2009) amaren esperientzian dago oinarrituta eta Errumaniako aleman hiztunak Sobiet Batasunean bizi izandako exilioa eta deportazinoak deskribatzen ditu.

[8] "Egun batean, ile-apaindegira nindoala, norbaitek besotik heldu zidan bat-batean: polizia zen eta inguruko etxebizitza bloke bateko sotora eraman ninduen. Han, hiru gizon zeuden nire zain. Haien buru zela zirudienak leporatu zidan, besteak beste, arabiar ikasleen emagaldua izatea, kosmetikoen truke. Esan nion ez nuela arabiar ikaslerik ezagutzen, baina berak hogei ere aurkituko zituela erantzun zidan, nire aurka lekukotza emateko. Gero, polizia argalak atea ireki zuen, joaten uzteko, nire nortasun agiria lurrera bota zuen eta ostikada bat eman zidan atzealdean: belar gainean erori nintzen, zuhaixka batzuen atzean. Zakur batek bezala egin nuen botaka, burua altxatu gabe." (Constantin, Roman: "Herta Müller. Nobel Sarira bidaia", *Argia*, 2.204, 2009-11-01, 26. or.).

[9] Ibidem, 27. or.

[10] "O García Márquez con sus *Cien años de soledad*. Macondo era para mí Nitzkydorf, porque era un pueblucho similar con mucha soledad dentro. O aquel páramo en *El otoño del patriarca*. No en balde algunos países sudamericanos estaban también marcados por las dictaduras", *Crítica*, 127, 2008 (Ikusi 14. oharra).

[11] Rodríguez, Julián: "Un poco de luz necesaria", *El Pais-Babelia*, 09-10-17, 14. or.

[12] Errumaniar esakunea: "Barriro izan naz faisai bat" (barriro egin dot porrot; atzera galdu dot; ostera be, ezin izan dot lortu...). Izan be, errumaniarrentzat faisaia galtzailearen irudia da: ezin dau hegaz egin, ehiztari hasi barriak be errezerrez aparau leike.

[13] Liburuko lehenengo kapituluak "El bache" dau izena. Bide beretik, "Al llegar al bache..." irakurten da izenbururik ez daukan azken atalaren lehenengo lerroetan.

[14] Aguilera, Carlos A.: "Herta Müller: El faisán rumano", *Critica, Revista de la Benemerita Universidad Autónoma de Puebla* (Mexiko), 127, junio-julio 2008. (www.criticabuap.blogspot.com).

[15] "Herta Müller dice que en la cara de las personas se puede leer la región de la que proceden", Adamesteanu. Gabriela: "La mirada herida de Herta Müller", *El Pais-Babelia*, 09-10-17, 14. or.